



HEZITZAILE GIDA

LEHEN HEZKUNTZA | 3. MAILA

Ezagutu Hondarribia Lehen Hezkuntzako unitate didaktikoen bilduma honen helburua, hain zuzen ere izenburuan agertzen dena da; alegia, Hondarribiko ondare kulturalaren transmisioan ekarpen txoa egitea, belaunaldien arteko etenik egon ez dadin.

Askok pentsa dezakete funtzio hau familian eta ingurune hurbilean betetzekoa dela, baina ez dugu ahaztu behar, jendartea biziberritzen doala, eta honekin batera aldatzen. Azken 75 urtean, hazten joan da Hondarribiko populazioa etengabe: 6.362 biztanle zituen 1940. urtean eta 17.181 aldiz 2015ean. Gaur egun Hondarribian bizi diren haur eta nerabeen gurasoak jaio ziren urteetan gertatu zen hazkunderik handiena. Populazioaren bilakaerari egiten badiogu kasu, aitona-amona izateko adinean dauden biztanle gehienak, herritik kanpo jaio dira. Beraz, baliteke haur eta gazte horiek, herriko ondare kulturalaren transmisioa etxean jaso ez izana.

Hau ikastetxearen lana dela, pentsa dezakete bestetzek, baina kontutan izanda ikastetxea gizarteratzeko bigarren erakundea dela (lehena familia baita), eta dagoeneko curriculum diseinuetan alor honetan finkatzen diren estandarrak Euskal Autonomi Erkidego osorako finkatuta egon, nahiz eta hainbat ikastetxeetan, zenbait irakaslek beren kasa, aparteko ahalegina eginaz, esparru hau jorratzen saiatu, beren erantzukizuna ez denez, ez dago sistematizaturik, eta ez da bermatzen ikasle ororengana heltzen denik. Baliteke beraz, haur eta gazte horiek, herriko ondare kulturalaren transmisioa ikastetxean jaso ez izana.

Jakina, herriaren lana da eta! Esan dezake inork. Baina.... Nor da herria?, ez al gara guztiok? Eta, ez al da askotan gertatzen **guztiona** den hori, **inorena ez** dela, errealitatean gertatzea?

Gero eta globalizatuagoa dagoen gure mundu honetan, maiz, urrun dugunaren gaineko informazio ugari jasotzen dugu eta gertukoa aldiz, etxekoa, ez dugu ezagutu ere egiten. Ezagutzen ez duguna, jasotzen ez dugun bitartean, existituko ez balitz bezalakoa da, eta ingurune hurbileko herritar kultur identitate nagusi horretan, hutsune handia jasan dezakegu. Nola balioztatu ezagutzen ez duguna? Nola maitatu? Nola inplikatu? Nola biziberritu? Nola ezagutzera eman? Nola atxikimendua izan? Nola norberarena sentitu?

Gero eta ozenago entzuten dugu **herri hezitzailearen** ideia. Ez da berria, baina bai gaurkotasun handikoa. Eta gaurkotasun horretan oso lagungarria izan da Francesco Tonucci psikologia ikertzaile italiarra. Ezaguna da, besteak beste, Fano herrian (Italian), udalarekin batera **Haurren Hiria** egitasmoa martxan jarri zuelako¹. Hark esana da: *Historia ikasgaia, umearen familiaren historia da, eta geografia, umearen auzoaren geografia.*

Testuinguru honetan, hurbileko ezagutzak erabiliz, norbere herriarekiko interesa eta motibazioa piztea interesgarria izateaz gainera, beharrezkoa dela irizten diogu, uste baitugu honela indartzen dela herritarren komunitate/talde sentimendua.

Ustezko hutsune honetan ekarpen txoa egiteko asmotan sortu genuen egitasmo

¹ Tonucci, F. (2013): Haurren Hiria. Txatxilipurdi.

hau, bai ikastetxean, bai etxean, bai kalean landu ahal izateko. Herria hobeto ezagutzeko, herrira gerturatzeko, herria gozatzeko, herria maitatzeko. Herria sentituz eta maitatuz, herri kohesioa eta herritartasuna garatzea da egitasmoaren azken helburua, xedea; izan zirelako baikara, eta garelako izango baitira.

Bildumak, 6 unitate didaktiko biltzen ditu, bat lehen hezkuntzako ikasmaita bakoitzeko, eta irakasle/ hezitzailearentzako gidaliburu bana. Honako hau dugu hirugarrena.

Kronologiaren ardatza jarraituko dugu; hau da munduren sorreratik gaur egunera arte, eta bertan bildu nahi genuke herri mailako ondarea.

Irakaslearen gidaliburuan, unitate didaktikoan agertzen diren eduki/ jardueraz gainera, beste hainbat biltzen ditugu, bai osatzeko, egoki irudituz gero, edo ordezkatzeko,.... Asmoa, materiala malgutasunez erabili ahal izatea da, ikastetxeak/ irakasleak/ hezitzaileak egokien deritzon arabera. Estekak eta bibliografia ere bertan biltzen dugu.

Bildumako adiskide ditugu erraldoi eta buruhandien konpartsako pertsonaiak, haurrentzako ezagunak eta erakargarriak direla pentsatzen dugulako eta gainera, herriaren bilakaerarekin lotura dutelako; honela, hiru erraldoi bikote ditugu: portuarrak diren Meltxora eta Muxarra; baseritarrak diren Frantxiska eta Txantxano eta kaletarrak diren Anttonbordo eta Kaxiana. Izenak, bere garaian bizi izan ziren hondarribiarrenak dira. Eta bidelagun gisara, Martxela balea, horizontala den erraldoi bakarra..

SARRERA

Gure armariak irekiko dizkigu unitate honen atea eta aurreko unitatean ezagutu genuen zigiluarekin zerikusi handia duela ikusiko dugu.

Oraingo honetan, gure hiriak Aro Modernoan izan zituen gorabeheraz ariko gara. Horretarako, hiri harresituaren garai boteretsuenean murgilduko gara eta Hondarribiak XVI eta XVIII mende tartean izan zuen protagonismo bereziaz jabetzen saiatuko.

Hiriaren birgotortzea biziko dugu eta egun, neurri batean zutik dirauen harresiaren sorrera eta nondik norakoak ezagutuko ditugu. Era berean, herriak pairaturiko setioen berri izango dugu eta harresiaren erabilera bitxi bat aipatuko: pilotaleku gisa.

Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Maria parroki eliza eta erreginarene baluarteak haien zenbait sekretu erakutsiko dizkigute eta Alde Zaharreko jauregi dotoretan zehar ibiltzeko gida ere izango dugu.

Esklavo eta sorginen inguruan ariko gara eta Udalari hurbileko begirada bat botako diogu, gure hiriaren inguruko erabakiak hartzen diren erakundea gertuagotik ezagutzeko asmoz.

Ahaztu gabe, unitate honetan berriro itsasoratuko gara; ez baitago gure herria ulertzerik itsasorik gabe. Oraingoan, Bidasoako urak utzi eta ozeano Atlantikoa zeharkatuko dugu Ternuarako bidea jarraituz.

Azkenik, gure hirian aurkitu ditzakegun jarduera kulturei begiradaxo bat botako diegu.

OROIMENA, J. Basurko,
(El Bidasoa, 1923-09-02)

-1-

*Ondarrabiko Jaizkibel mendi
zabal artan jayo nintzan.
Nik ez nekien, gazte denboran,
erriko bizitza zer zan;
artzai txistu ta txori abesti
besterik entzuten etzan.
Jai egunetan, erritik gora,
nor-edo-nor irixten zan,
gañerakuan, jolasten nintzan,
eliz aurrean, pillotan.*

-2-

*Zenbat alditan eramán nion
nere amari gobara,
itxas aldeko iturritxora
beko erreka txokora;
juaten nintzan txotxak biltzera,
«Gutziz-eder»-ko oyanera.
Gibelurdiñ ta xixa gozoak
bildu izan ditut kolkora,
orduño nere ibillera ayek
Etortzen zaizkit gogora.*

-3-

*Birian dator, iya iritxi da,
iraillaren zortziya,
ondarbitarrak erriko festak
egiteko berexiya.
Egun orretan Guadalupera
juango da jende guziya,
zar eta gazte, paketzu ta alai,
naiz atera izerdiya.
Ordu batzutan pozez beterik,
ni jayo nintzan mendiya.*

-4-

*Goizeko intza gozoa artuaz,
iges egiñaz Erritik,
ni're juango naiz, mendiyak gora,
bire polit-txo batetik,
eliz aurreko zugaitz maiteak,
arren! egon bitez zutik,
inguru artako lagun zar ayek,
maite bai ditut gogotik!
Nere burura ekartzen duten,
oroimen gozuagatik.*

Abiatu baino lehen, Hondarribiari buruzko olerki hau ekarri nahi izan dugu irekiera eta inspirazio gisa. Baxurko olerkari hondarribiarrarena da eta unitate amaieran izango dugu bere berri.

GURE ARMARRIA

Alde Zaharrera Santa Maria ateak ongietorria ematen digun moduan, unitate honetan gure armarría izango dugu ate.

Aurreko unitatean zigilua aztertzeo aukera izan genuen. Oraingoan, zigiluan jada agertzen ziren zenbait elementu gure egungo armarrían ere agertzen direla ikusteko aukera izango dugu eta elementu horietako batzuk gure unitatean aztertzeo aukera izango dugun hainbat ataletara eramango gaituzte, esaterako gazteluak berak edo balearen presentziak.

Gure egungo armarríaren irudikapena XVII. mende hasierakoa da. Horrela ondorioztatu daiteke 1603ko apirilaren 3an Aranburuko Domingok hiriarí idatziriko eskutitzean. Dokumentu honetan, egungo armarríaren garapen prozesuaren hasiera izan daitekeena ikus dezakegu. Armarríaren zirriborro bat ageri da eta xehetasun handiko deskribapen bat egiten da.

Jarduera 1: azter dezagun gure armarría. Gure armarría oparóa da sinbologiari dagokionez. Ikasgelan, denon artean, armarrían ikusten ditugun elementu ezberdinei buruz hitz egin dezakegu: zergatik ote dago itsas-lami bat? Zergatik balea?... Astindu dezagun gure irudimena eta gara ditzagun gure hipotesiak.

Gure armarría lau laurdenetan zatiturik dago: goialdean eta ezkerretara, eskuarteán giltza handi bat daraman aingeru bat daukagu. Goialdean eta

eskuinetara aldiz, lehoi zutitua. Behealdean eta ezkerretara, itsasontzi bat eta arpoiak jotako bale bat. Behealdean eta eskuinetara, bere burua ispiluan begiratzeko duen itsaslaminarekin eta eskuartearen granada bat duen tritoia. Erdialdean, gaztelu bat ageri da bi izarrek lagundurik. Armarrari gainaldera joz gero, errege koroa bat eta Guadalupeko Ama Birjina ikus daitezke. Guadalupeko Ama 1638ko setioaren garaipena ondoren jarri zuten armarrariaren goialdean. Armarrariaren inguruan kanoiak eta banderak ikus daitezke, guda garaipen ikur bezala. Amaitzeko, inskripzio luze batek, historian zehar errege ezberdinek hiriarri emandako tituluak azaltzen ditu: “Hondarribiko Hiri Oso Prestu, Oso Leial, Oso Adoretu eta Beti Oso Zintzoa”.

Izaera ezberdineko elementuak nahasten dira hortaz gure armarrarian: izaki mitologikoak, erlijioarekin zerikusia dutenak, jarduera ekonomikoak, gotorleku izaera, tituluak... Jende askorentzako bitxia da itsaslaminarekin eta tritoiaren presentzia. Euskal mitologian ezaguna da lamia. Basoetan, erreka bazterretan egon ohi dela esaten da eta hegazti oinak dituen emakume ile-horia izaten omen da. Itsaslaminak aldiz, gerritik behera arrain baten itxura du; eta gerritik gora, emakume batena. Itsas ertzean, lamia itsas-lami bihurtzen ote da? Hondarribiko toponimian ez dira gutxi, lamiarekin zerikusia duten izenak. Jaizkibelen esaterako, *Lamiarpea*, *Lamizuloa*, *Lamiarri* edo *Lamiarrieta* bezalakoak aurkitu daitezke eta Higer lurmuturrean *Laminatera*.

Tritoia ere, gerritik behera arrain itxura eta gerritik gora gizonezko batena duen izaki mitologikoa da. Mitologia klasikoan itsaso zakarraren orroaren ikurra omen da.

Nabarmentzekoa da gure egungo armarrarian, itsasoari lotzen gaituzten hainbat elementu aurkitzea.

BA AL ZENEKIEN...?

Parrokiako gangetako batean armarrariaren elementu gehienak azaltzen dira banan-banan. Ea parrokiarekin irekita ikusten dugun batean sartu eta aurkitzen ditugun. Ez da batere erraza, denbora guztian gorantz begira joan beharko dugu eta. Pista bezala, ezkontza baten bukaeran, ezkonberriak ateratzeko erabili ohi duten atetik hurbil dagoen ganga batean daudela esan dezakegu, sakristiako atetik hurbil. Hauexek han aurkituko ditugun elementuak, bakoitza bere aldetik: itsasontzia, bi lami, arpoiarekin jotako balea, aingerua eta lehoia. Gaztelua da, izan ere, falta den elementuetako bat, baina elizako beste gangetan begiratzeko badugu, gaztelua hainbat aldiz errepikatzen dela ikusiko dugu!

2. Jarduera: hurrengoan Alde Zaharrera hurbiltzen garenean (gurasoekin, aitona-amonekin...) ea Hondarribiko armarrariaren zenbat irudikapen zenbatzen ditugun.

Ez da ariketa erraza, armarrari batzuk oso nabarmenak dira baina beste batzuk ez dira berehala ikusten. Denon artean osatzen joan gaitezke, gurasoen laguntzarekin eta ikasgelara ekarri kokaleku berri bakoitza antzematen dugunean. Ziur guk ezuste bat baino gehiago hartuko dugula, baina baita gure guraso edo lagunek ere! Poliki-poliki zerrenda bat osatu dezakegu ikasgelako arbel batean. Edo bestela, alde zaharreko mapa handi bat inprimatu eta pegatinatxoak jartzen joan kokaleku berriak agertzen joan ahala.

GOTORLEKU MODERNO ETA BOTERETSUA

Aurreko unitatean ikusi ahal izan genuen Hondarribiak, bere muga izaera dela eta izan duen garrantzia historian zehar. Garrantzi hori Erdi Aroan nabarmendu bazen, Aro Modernoan zehar, areagotu egin zen. Horrela, Hondarribia XVI. mendean, garaiko gotorleku moderno eta boteretsu bihurtu zen eta bere nagusitasunari eutsi zion, XVII. mendearen bukaeran protagonismo horren gainbehera hasi zen arte.

ARO MODERNOA

Aro modernoak ate berriak irekiko dizkio gizaki europarrari Erdi Aroko mundu zaharra eta haren sinesmenak aieka batera utziz. Antzinarotik europarrentzat, Mediterraneo munduaren erdigunea izan bazen, orduak aurrera Atlantikoak hartuko du nagusitasun hori. Mediterraneoak ekialde eta mendebaldeko merkataritza ahalbidetu bazuen, XIV. mendetik aurrera, Otomandar Inperioa nagusitu ahala, gainerako potentzia kristauek, merkataritza bide berriak bilatu beharrean ikusi zuten haien burua, Atlantikora joz. Ozeano berria, lur, aberastasun eta kultura berrietara iristeko zubi bilakatu zen eta horrek eragin handia izan zuen garaiko gizaki europarraren pentsamoldean. Atlantikoaren ateak zabaltzeak, pentsamenduaren irekiera ekarriko du, aldaketa kultural, erlijioso, ekonomiko, sozial eta politiko sakonak eraginez.

Erdi Aroan Jainkoa zen guztiaren erdigunea, aro berrian aldiz, pertsona bihurtu zen erdigune, izan ere, mundu berriko bizipenek, gizaki europarrari ikusarazi zioten, bibliaz haratago hainbat ezagupen daudela eta honenbestez, gizakiak ikasi eta ezagupen berriak garatu zitzaizkela ohartzen hasi ziren. Horixe da, hain zuzen ere, Errenazimenduan sortu zen mugimendu intelektualak zioena,

Humanismoak alegia. Humanismoak gizakia ardatz jartzeaz gain, antzinako Erroma eta Greziako kulturak miresten zituen. Mundua ezagutzeko, ikerketa eta arrazoinamendua erabili behar zirela uste zuen; elizak Erdi Aroan ezarritako dogma edo “egi absolutuak” alboratuaz.

Pentsamolde aldaketa honek erlijio katolikoaren nagusitasuna ezbaian jarri zuen. XVI. mendean, Martin Luther alemaniarrak, garaiko apaizeriaren ustelkeria salatu eta erreforma protestantea abiatu zuen. Eliza katolikoak kontra-erreforma batekin erantzun zion honi eta guda odoltsuak eragin zituen Europan, erlijio-gatazka honek.

Erljio katolikoak botere galera jasan zuen eta nobleek Erdi Aroan izandako nagusitasuna ere galdu zuten. Hirietan klase sozial berri bat gailentzen hasi zen, burgesia izenekoa, hiribilduetako merkataria aberatsek osatzen zutena. Errege eta erreginen boterea, Erdi Aroan, nobleziak mugatzen bazuen, aro berrian barrena, nobleziaren indarra ahuldu ahala, burgesiarekin bat egin eta nagusituko dira. Horrela joan ziren sortzen monarkia autoritarioak, gerora Estatu nazionalak bihurtu zirenak.

EUROPAKO GUDAN

Aro Modernoan barrena, Europako potentzia ezberdinak elkarren arteko lehia zebiltzan boterearen haienganatu nahian. Lehia horrek hainbat guda sortu zituen eta Hondarribiak, behin baino gehiagotan pairatu zituen gatazka horien ondorioak, izan ere, behin baino gehiagotan izan baitzen setiatua.

1476ko setioaren zergatia, Frantzia eta Espainiako koroek Europan bilatzen zuten nagusitasuna izan zen, baita 1638ko setio ezagunean ere. Azken hau *Hogeita Hamar Urteko Gerran* kokatu behar dugu eta gatazka horretan, Europako ia potentzi

guztiak lehiatu zirela esan daiteke, alde katolikoan edo protestantean kokatuta.

Hala ere, Hondarribiaren muga izaera horrek ez zituen soilik setioak eta gatazkak ekarri bere harresietara. Aro berri honetan, Erdi Aroan bezala, unean uneko erregek hainbat abantaila eta pribilegio aitortu zizkioten hiribilduari, bere defentsa funtzioa ondo bete zezan. Horrez gain, XVI eta XVII. mendeetan zehar, hainbat gatazken agertoki izan bazen ere, bake prozesu ezberdinen lekuko ere izan zen gure gotorleku boteretsua eta horrek, gure hirira garaiko hainbat pertsonai entzutetsu ekarri zituela ikusiko dugu.

HONDARRIBIA, ESKUALDE-BURU

Gure hiriaren garaiko garrantzia ulertzeko, eskualde zabal baten buru izan zela gogoan izan behar dugu. Aurreko unitatean aipatu bezala, Gaztelako errege zen Alfontso VIII.ak, 1203an Hondarribiko hiribilduari aitorturiko foruetan, lur eremu zabal bat zegokion: ***Oiartzun ibaitik Bidasoaraino, Aiako Harrietatik itsasoraino eta Beratik Bidasoa ibaiaren itsasoratzeraino.*** Aro berri honetan, Irun, Lezo eta Pasai Donibane, Hondarribiaren esku jarraitzen zuten.

Gainera, garai hartan, beste ezer baino lehen, gotorturiko “plaza” bat zela ezin ahantzi. Garaiko errege-erreginek, Gaztelako koroaren baluartetzat jotzen zuten; hau da, Frantziaren erasoenganako lehen lerroko babesa. Hau agerian geratu zen 1476ko setioan. Ordutik, Gipuzkoako kapitaintzaren xede bilakatu zen eta XVI. mendetik aurrera, gotortze sendoa ukan zuen. Era berean, beti erregeren soldatapeko guarnizio baten presentzia bermatu zen Hondarribia. Horrez gain, behe Erdi Aroan eta XVI. mendean, hainbat abantaila zituen hiribildua zen. Esate baterako, alkateak justizia gauzatu ahal izatea, erkidegoaren autogobernu aukera, kontzeju ofizialak izendatzeko

gaitasuna edo merkataritzarako askatasuna. Beste abantaila batzuk, Gaztelako errege ezberdinek aitorturikoak ziren, adibidez, bertako biztanleak zenbait zerga ordaindu behar ez izatea edo hiribildu barnean merkataritza sustatzeko neurriak hartzea.

Baina Irun, Pasai Donibane eta Lezok, Hondarribiaganako zuten menpekotasun egoera horrekin bukatu nahi zuten eta horrek hainbat gatazka sortu zituen, bereziki Irunekin. Gatazka eta istilu horien aurrean, unean uneko erregek, Hondarribiaren aldeko erabakiak hartu ohi zituen. Izan ere, Irunek bizi zuen garapen ekonomikoak eta biztanleriaren hazkundeak, Hondarribiaren nagusitasun hori ezbaian jarri zezakeenaren beldur ziren. Irungo biztanleria gehiegi hazten bazen, Hondarribikoa gutxitzeko arriskua egon zitekeela pentsatzen zuten eta hori ez zen inolaz ere komenigarria, hiribilduko biztanleriak hiriko defentsan parte hartzen baitzuen. Beraz, hau saihesteko, eskualde-buru zen Hondarribiak, Irungo komunitateari hainbat zama eta betebehartzen zizkion; hala nola, harrizko etxeak eraikitzearen debekua, biztanleen arteko merkataritza harremanak mugatzea, defentsarako armaturiko gizonezkoak eskaintzeko betekizuna edo baita hiribilduaren gastu orokorrekin laguntzearena ere.

Hainbat gatazken ondoren, Irun, Pasai Donibane eta Lezo burujabetasuna lortzen joan ziren XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasierako tarte horretan.



3. Jarduera: oraingoan hausnarketarako tartea hartuko dugu. Nolakoak dira gaur egun gure hiria eta inguruko hiriko biztanleen arteko harremanak? Ba al dago areriotasun edo ezinikusirik? Gure artean eztabaida dezakegu ea bakoitzak zer pentsatzen duen gai honen inguruan. Ikasgelan jatorri aniztasuna badago, hainbat hobe! Ziur ikuspuntu ezberdinak agertuko direla... Adibidez, Irungo biztanleek badute Hondarribiarrentzako goitizen bat... Eta alderantziz?

HONDARRIBIA-GIPUZKOA

Garai hartan Hondarribiak zuen nagusitasun militarra, ez zetorren bat zuen tamaina eta aberastasuna kontutan hartuta, eta hori nabarmentzen zen Gipuzkoarekin zituen harreman instituzionaletan. 1457ko probintziako ordenantzetan ikus daiteke Hondarribia zela, Gipuzkoako Junta Orokorren bilerak ospatzen ziren 18 hiribilduetako bat. Bilera horiek ospatzeko txandetan, Hondarribiak 8. postua zuen, Zumaia eta Bergara artean. Gure hiribilduaren eragin maila beraz nahiko xumea zen garaiko hiribildu nagusiekin alderatuta; hau da, Tolosa, Ordizia, Segura edo Donostia adibidez.

Hiribildua behin baino gehiagotan saiatu zen probintziako instituzioetan zuen eragina areagotzen eta horrek hainbat buruhauste sorrarazi zizkion. Adibide bat aipatzekotan, gatazka ugari eragin zituen gaietako bat *Alcaldía de sacas* deiturikoa izan zen. Alkatetza berezi honen betebeharra, mugako kontrabandoa zelatatzea zen eta Irunen kokatzen bazen ere (Hondarribiaren eremuan beraz), Hondarribiak ez zuen inolako eraginik erakunde honetan, probintziaren kontrolpean baitzegoen.

Beste gatazka iturri garrantzitsu bat probintziarekiko harremanetan, Pasaiako portu naturala izan zen. Pasai Donibane Hondarribiaren menpe bazegoen ere, Pasai San Pedro Donostiaren esku zegoen eta portua, azken honen menpe.

1638ko setioaren ondorioek ere, probintziarekiko desadostasun berriak ekarri zituen. Aurrerago ikusi ahalko dugun moduan, setio honetan Hondarribiak izandako garaipen entzutetsuak hainbat onura eta ohore ekarri zizkion hiribilduari eta hain zuzen ere, horretaz baliatzen saiatu zen probintzian zuen eragina areagotzeko, baina beste behin ere ez zuen bere helburua lortu.

SETIOAK

Esan dezakegu, Euskal Herrian ez dagoela Hondarribia bezainbeste setio edo eraso jasan duen herririk, ezta hain defentsa sendo eta boteretsua izan duenik ere, Iruñea kontutan hartzen ez badugu behintzat. Badakigu honez gero, bere kokapen geografikoa izan zela horren arrazoi nagusia. Hona, bere historian zehar hiribilduak pairaturiko setio nagusiak:

1280ko setioa

2. unitatean jakin genuen nola Frantziako Filipe III.a erregek, 1280an Hondarribia erasotu zuen eta nola Gaztelako Alfontso X.ak bere tropekin iristerakoan Artzuko Matxinen abilezia eta zuhurkeriaz baliatuz, frantziarrak uxatu zituzten.

1476ko setioa

Setio hau Gaztelako koroa bereganatzeko bi pertsonen arteko lehiaren ondorioa izan zen. Alde batetik, Joana *La Beltraneja* deiturikoa dugu eta bestetik Isabel Katolikoa, 1469tik Gaztelako erregina zena. Joana Portugalgo erregerekin zegoen ezkondata eta honek Frantziako Luis XI. arekin bat egin zuen. Gauzak

horrela, 1476an, Luis XI.ak Hondarribia setiopean jartzeko agindua eman zion Labriteko jaunari, bere aliatu portugaldarra laguntzeko. Zenbait iturriren arabera Labriteko jauna 20.000 soldadurekin iritsi zen (beste batzuen arabera gudarosteak 40.000 soldadu biltzen zituen). Gatazka honetan zehar, frantziar gudarostea behin baino gehiagotan erretiratu zen Baionara hornidura bila. Bitartean, hondarribiarrek bere defentsak hobetzeko baliatzen zuten denbora hori eta kanpotik laguntza jasotzeko. Hala kontatzen da kantu zahar honetan probintziak bidalitako Juan Lazcano eta bere soldaduei buruz:

*Juan Lazcano beltzarana
Guipuzkoako kapitana
Francés osteak jakingo dik
Ura Ondarrabiyan zana.*

Edonola ere, dirudienez setioa pairatu zuten hondarribiar horiek ez zuten hiribildua soilik barrutik defendatu; behin baino gehiagotan kanpora ere atera omen ziren arerioa erasotzeko asmoz. Irtenaldi horietako batean, kanpoko etxe batean babesturik zeuden 120 soldadu erasotu omen zituzten, etxeari sua emanaz.

Frantziar erregek, ikusirik bere gudarosteek ez zutela gehiegi aurreratzerik lortzen eta Hondarribiari geroz eta laguntza gehiago iristen zitzaiola, erasoak bertan behera uzteko agindua eman zuen. Hala sinatu zuten su-etena Labriteko jaunak eta Juan Ganboakoak, mugako kapitain orokorrak.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, setio honek markatu zuen betirako Hondarribiako harresien garapena.

1521eko setioa

1512an, Aragoiko Fernando errege katolikoak, Nafarroako Erreinua konkistatu zuen. Albreteko Joan, Nafarroako erregea, Frantziako erregearekin elkartu eta

galdutako bere lurraldeak berreskuratzen saiatu zen. 1521ean Hondarribia erasotu eta hamabi egunetan menperatzea lortu zuten. Frantziar-nafar gudarosteak bi urte ta erdiz eutsi zion hiribilduaren jabetzari 1524an galdu zuten arte.

1638ko setioa

1638ko setioa Europako potentzia gehienak elkarren kontra lehiatu ziren *Hogeita Hamar Urteko Gerra* deiturikoan kokatu behar dugu. Testuinguru horretan, Frantzia eta Espainiako koroen arteko lehiak, Frantziako gudarostea gure harresietaraino ekarri zuen beste behin, Luis XIII.ak bidalia eta Conde printzearen agindupean. Setio gogor eta entzutetsu honetan, hiri harresituaren barrukoek 69 egun luzez eutsi zioten erasoari amore eman gabe.

Garaiko dokumentuen arabera, lurreko frantziar gudarostean 18.000 soldadu eta 2.000 zaldizko zeuden eta itsasoan aldiz, Higer lurmuturraren inguruan eta Bordeleko artzapezpikuaren agindupean, 64 ontzi. Hiribildua defendatzeko prest zeudenak 700 kide baino ez ziren, bertako biztanle, gazteluko soldadu, irlandar soldadu eta Tolosa eta Azpeitiko tertzioekin osaturik. Egun batzuk beranduago, probintziak beste 320 soldadu bidali zituen; guztira beraz, 1.000 pertsona inguruz ari gara. Zenbait iturriren arabera, setioaren bigarren hilabetea hasi zenerako, hiri harresitua defendatzeko 300 bat soldadu baino ez omen ziren gelditzen.

Setioa beraz, biziki gogorra izan zen. Frantziar gudarosteak harresietan bi zulo izugarri ireki zituen, bertatik zaldiz igarotzeko modukoak; 7 mina leherrarazi eta 9 eraso burutu zituen, inolako arrakastarik gabe. Hau gutxi balitz, hiri harresituak guztira 16.000 kanoikada jasan zituela jasotzen dute frantziarrek beren dokumentuetan.

Hiri harresituko etxeak ia erabat suntsituta zeuden eta zauritu ugari zeuden. Une horretan, 1638ko irailaren 3an, Conde printzeak errenditzeko aukera eskaini zien setiatuei, haiek behar zuten kanpoko laguntza iritsiko ez zela argudiatuta. Baina harresi barrukoek tinko eutsi zioten eta ez zirela inolaz ere errendituko erantzun. Irailaren 7an, Gaztelako Felipe IV. erregeren gudarosteak frantziar armada Jaizkibeletik erasotu eta hauek ihes egin zuten. Hondarribiarren garaipenaren berria ziztu bizian zabaldu zen erresuma osoan eta gertakizun honen inguruan hainbat kronika, erromantze, antzezlan eta olerki idatzi ziren.

BA AL ZENEKIEN...?

Felipe IV.ak, 1638ko setioaren garaipen handiaren ondoren HIRI titulua eman zion Hondarribiari eta hala bihurtu zen Gipuzkoako lehenengoa titulu hori jasotzen; Donostia bera baino lehenago.

Bestalde, dagoeneko bereak zituen **Oso Prestu** eta **Oso Leial**, tituluei, **Oso Adoressu**-arena gehitu zion. Azken titulua, **Beti Oso Zintzoa** 1799an jaso zuen hiriak, Carlos IV.aren eskutik.

1719ko setioa

Setio honetan Berwickeko dukea izan zuen buru Frantziako armadak. Utrechteko Hitzarmenak Espainiako Ondorengotza Gerrari amaiera jarri zion arren, gatazka berri bat sortu zuen. Oraingoan, Frantzia, Ingalaterra, Austria eta Holandarekin batu zen eta Espainiari guda deklaratu zion. Berrito, frantziar gudarostea Bidasoa ibaian agertu zen 1719ko apirilaren 19an Hondarribia erasotzeko prest. Oraingoan, hiriak amore eman zuen.

1794ko setioa

Setio hau Konbentzioaren Gerran kokatu behar dugu. Frantziako Errepublika eta Espainiako monarkiaren artekoa izan zen gerra hau eta Hondarribiak, berriro ere, ondorioak pairatu zituen. Frantziarrek hiria menderatzea lortu zutenean, haren harresi eta defentsak suntsitzen hasi ziren eta horretarako aditu alemaniarrek ekarri zituzten. Hendaiara begira zegoen harresia txikitu zuten eta baita bertako baluarteak eta gazteluaren zati garrantzitsu bat ere. Mendebaldeko harresian hainbat zulo ireki zituzten eta polbora barrikak prestatu, zati hau ere lehertzeko asmoz. Baina hau gauzatu aurretik, Basileako Bakea izeneko ituna sinatu zuten eta leherketa haiek geldiarazi zituen. Setio honen ondoren Hondarribiak betirako galdu zuen bere harresiaren babeseta eta plaza militar bat izateari utzi ziola esan daiteke.

PIRINIOETAKO BAKEA

Hondarribia, bere historian baitan, gatazka eta setio odoltsuen eszenatoki izan bada ere, bake hitzarmenen lekuko ere izan da. Halaxe gertatu zen Espainiak eta Frantziak hainbat urtetan elkarren arteko gudan murgildurik egon ostean sinatu zuten bake itun garrantzitsu batekin. Pirinioetako Bakea deitu zioten eta 1659ko azaroan sinatu zen Faisaien Uhartean.

Faisaien Uhartea gaur egun Irunen dagoela dakigun arren, gogoratu, garai honetan Irun oraindik Hondarribiaren baitan zegoela. Harrezkeroztik Pirinioak dira Frantzia eta Espainiaren arteko muga markatzen dutenak. Europa osoa egon zen hona begira. Halakoa zen bake konferentzia horien garrantzia.

Bake hitzarmena sinatzea xede zuten konferentziek hiru hilabete iraun zuten Faisaien Uhartean eta bertan Frantziako errege Luis XIV.a eta Austriako Maria Teresa infanta, Espainiako errege Filipe IV.aren alabaren ezkontza hitzartu zen.

Paristik abiatu zen frantziar errege familia eta Madrildik espainiar erregea bere alaba infantarekin, bai batzuek zein besteak segizio handi batez lagundurik zihoazela.

Filipe IV.a eta Maria Teresa infanta Hondarribiara iritsi ziren 1660ko ekainaren 2an, arratsaldeko 6etan. Infanteriako 600 soldadu omen zituzten zain hiriko atean eta miliziak kale Nagusiko bi aldeetan omen zeuden. Arma plazara igo ziren kainoien eta kanpaien ongietorri zaratatsuak harrera egiten zien bitartean. Plazara iritsita, hiriko giltzak entregatu zizkieten eta gazteluan hartu zuten ostatu. Hiri harresitua jendez gainezka zegoela diote, hainbat noble frantziar ere bertaratu omen ziren. Gau guztian zehar kaleak argizatuta eduki zituzten, leiho eta balkoietan jarritako kriseiluekin eta udalak bidegurutzetan jarritako bale olio z betetako kupelekin.

Hurrengo egunean, Filipe IV.a eta Maria Teresa infanta karrozan jaitsi ziren gaztelutik Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Maria elizara. Koruak *Te Deum*-a kantatu bitartean hurbildu ziren ezkerreko nabean jarritako sabaidun oholtzara. Baina ezkontza ahalordezkoa zen, hau da, senargaia, Luis XIV.a, ez zen bertaratu eta beste pertsona bat izendatu zuen ezkontza ospakizunean bera ordezkatu zezan: Luis de Haro, Filipe IV.aren ministroa hain zuzen. Elizan, Luis XIV.ak, Luis de Haro ministroari entregaturiko ahalordea irakurri zen eta baita Aita Santuak bikoteari emandako dispensa ere, izan ere, Espainiako infanta eta Frantziako erregea lehengusu propioak ziren. Luis de Harok ez omen zuen infanta eskuetatik heldu ezta eraztunik jarri ere. Hori egun batzuk beranduago egin zuen Luis XIV.ak berak, Donibane Lohizuneko elizan errepikatutako ezkontza ospakizunean. Hondarribiko elizkizuna amaiturik Filipe IV.a eta Austriako Maria Teresa, jada Frantziako erregina bihurturik, gaztelura itzuli ziren. Oraingo honetan,

karrozan, Filipek leku nagusia eskaini zion bere alabari, jada Frantziako erregina zela adierazi nahirik. Egun batzuk beranduago, Maria Teresak Donibane Lohizunera bidaiatu zuen eta ezkontza ospakizuna errepikatu zuten bertako elizan, oraingoan senar-emazteak, biak bertan zeudelarik.

Pirinioetako Bakeak porrot egin zuen ordea. Filipe IV.ak ez zuen ordaindu bere alabaren ezkontzarako hitzarturiko 500.000 urrezko ezkutuk osatutako ezkonsaria eta horrek aitzakia eman zion Luis XIV.ari hitzarmena bertan behera uzteko.

JOANA EROA ETA FILIPE EDERRAREN EGONALDIAREN PASADIZOA

Alde Zaharrean badago istorio bitxi baten itzala daraman jauregi bat; Juan Laborda kalean dagoen **Egiluz** Etxeaz ari gara.

4. Jarduera: ikus dezagun alde z aurretik zer dakigun jauregi honi buruz. Ikasgelan aipatu dezakegu denon artean ea norbaitek zerbait entzun ote duen. Ondoren, etxean galdetu dezakegu: zer esaten du herri tradizioak Egiluz jauregiari buruz? Gure ikerketaren emaitzak ikasgelan aipatu ditzakegu, ea ze bitxikeri ekartzen dugun zuzenean herritik ikasgelara...

Hondarribian, ahoz aho ibili izan den istorio bat da Egiluz etxearena; izan ere, beste izen bat eman ohi zaio jauregi honi, *Juana eroaren etxea* bezala baita ezaguna herrian. Horren lekuko dira garai bateko postal zaharrak ere, non *Palacio de Doña Juana la Loca* bezala azaldu ohi den.



Material osagarria:

Egiluz etxea postal zaharretan (Juana la Loca jarrita bilatzailean):

<http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

Zergatik ote da beraz, izen honekin ezaguna? Herri tradizioaren arabera, Joana artxidukesa (ondoren Gaztelako Joana I bihurtuko zena) eta bere senarra, Filipe artxidukeak (*Ederra* ezizenarekin ezaguna), etxe honetan hartu omen zuten ostatu hiru egunetan 1502an, Flandriatik Toledora egindako bidaiari. Baina herri tradizioak ahoz aho pasa duen istorio honetan badago pitzadura bat edo beste. Lehenik eta behin, bertaratzen bagara, etxearen aurrealdeko plakak, jauregia XVII. mendekoa dela kontatuko digu, eta Joana eta Filiperen bidaiari XVI. mende hasieran izan zela aipatu berri digu. Hori gutxi balitz, Hondarribiari buruz idatzi zuten XIX. mendeko zenbait kronikariek diotena aintzat hartzen badugu, gaur egun Carlos V.aren gaztelua bezala ezagutzen dugunaren zati bati deitzen omen zioten *Joana Eroaren jauregia*. Nola jakin beraz benetan zer gertatu ote zen? Sakonago ikertu behar.....

Jakin badakigu bidaiari horretan, Joana eta Filipe Hondarribian egon zirela. Bidaiari luzea egin zuten Flandriatik Gaztelara. Joana, Isabel eta Fernando Errege-Erregina Katolikoaren alaba zen eta bidaiari hura Gaztelako eta Aragoiko koroen oinordeko izendatu zituzten egin zuten. Bidaiari luzea egin ondoren, Hendaiaraino iritsi eta han, garaiko kronisten arabera, luxuz apainduriko itsasontziek Bidasoa zeharkatzen lagundu zieten Hondarribiara iristeko.

Hiribilduan egin zuten sarrera ikusteko modukoa izango zen garai hartako hondarribiarrentzat. Austriako artxikudesa eta artxidukearekin batera egundoko segizioa zetorren. Luis de Urantzuk kontatzen digunaren arabera, 1.000 pertsona inguru zetozen haiekin batera, tartean militarrek, elizgizonak, gorteko jendea eta zerbitzariak.

Badirudi, lehenengo elizan gelditu zirela eta ondoren gazteluraino jarraitu zutela eta bertan hartu zutela ostatu, haiekin zetozen beste hainbat nobleekin batera. Hala diote garaiko kronikariek behintzat. Baina Filipe artxidukeak arazo bat zekarren berarekin, izan ere, odoluzkiak zituen eta ezinezkoa zitzaion zaldiz jarraitzea. Gorteko medikuen ukenduek sendatu ezin zutela eta, Hondarribian Aita Sorgin deitzen zuten sendatzailea deitu eta hark prestaturiko ukenduak sendatu omen zuen. Artxidukeak, esker onez, edozer gauza eskatzeko esan omen zion eta Aita Sorginek erantzun, mesedez haiek Hondarribiatik joatea besterik ez zuela nahi, izan ere, hainbeste jende osatzen zuen segizio horri jaten emateak Hondarribiko hornidura guztiak bukatzen ari ziren eta horrela jarraituz gero, bertakoek ez zuten negua pasatzeko adina janari izango. Aita Sorginek eskatu bezala egin omen zuten eta hurrengo egunean bertan jarraitu zuten bidaiari Joanak, Filipek eta beraien segizio itzelak.

BA AL ZENEKIEN...?

Joana eta Filiperekin batera etorri zen segizioan, 150 arkulari zetozen. Borgoñakoak, eta seguru hondarribiarrak txunditu zituztela. Uniforme zuri eta dotorea zeramaten eta bularraldean gaur egun hirian oso ezaguna zaigun gurutze edo ikoroski gorri bat, gure hiriko banderaren agertzen dena hain zuzen. Nork esango zien gure arbasoei, une hartan ikusten ari ziren gurutze gorri hori hiriaren ikur garrantzitsua izatera iritsiko zela?

Material osagarria:

Borgoñako arkulariak ikusteko:
<https://artinwhitemetal.wordpress.com/tag/guardia-noble-de-los-archeros-de-borgona/>

HIRIAREN BERGOTORTZEA. HARRESI BERRIA

Gotortzea, eremu bat behar dituen babesean hornitzea da, beti ere, etsaiari aurre egiteko asmoz. Aurreko unitateetan ere ikusi izan ditugu gotortze sistema ezberdinak, izan ere, sistema hauek aldatzen joan dira denbora pasa ahala, unean uneko teknologia, baliabide eta erabaki politikoen arabera.

Burdin Aroan kastroei buruz hitz egin badaiteke, Erdi Aroan dorretxeak eta hirigune harresituak ikusi genituen.

Erdi Aroan 2 edo 2,5m zabalerako harresi altuak eraiki ohi zituztela aipatu genuen. Eskalatzen zailak ziren eta garaiko armei aurre egiteko; oro har, gezi eta katapultak alegia. Harresian zehar, dorreak tartekatzen ziren; harresiak baino altuagoak.

Armak garatzen joan ziren ordea eta suzko armak iritsi XIV-XV. mendeetan. Arma moderno hauen aurrean, Erdi Aroko babes sistemak ezer gutxi egin zezaketen. Agerikoa izan zen Hondarribiak 1476ko pairatutako setioan. Setio hartan, frantziarrek suzko armak eta artilleria astuna erabili zituzten hiria bereganatzeko eta hondarribiarrek lubanarroak, trintxerak eta lurrez eginiko baluarteak inprobisatu behar izan zituzten horiei aurre egin ahal izateko. Horrez gain, harresian barrena tartekatzen ziren dorre altuak nahita eraitsi zituzten, artilleriaren inpaktuaren ondorioz suntsituz gero, harriak haien gainean eror ez zitezen.

Erdi Aroko defentsa hauek zaharkituak geratu ziren beraz, eta garaiko arkitekto eta ingeniari militarrek, gotortze sistema berriak diseinatzen hasi ziren. Alde batetik, jada garrantzitsua ez zen harresiaren altuera, baizik eta lodiera edo zabalera. Harresiek sendotasuna behar zuten, kainoien inpaktuak jasan ahal izateko

eta denborarekin, ingeniari militarrek, 15 m-ko zabalera zuten harresiak behar zirela konturatu ziren. Baina horrelako langintzaren ordaina handia zenez, harresia harlangaitzez (gutxi landutako harria) eraiki ohi zuten eta kanpoaldea harlanduarekin estali (landutako harria).

Horrez gain, Erdi Aroko dorre haien ordeztuak *kuboak* ezarri zituzten. Gaur egun kuboak esaten dugunean, forma geometriko laukiduna datorkigu burura, baina gotorleku modernoek ari garenean, hitz honek neurri handiko dorre biribila esan nahi du. Kubo hauek ez ziren harresia baino garaiagoak eta artilleria piezak kokatzeko prestaturik zeuden. Denborarekin ordea, kubo hauek arazo bat zutela ikusi zuten, izan ere, hainbat angelu, babes gabe uzten zituzten. Beraz, hauen ordeztuak bastioi edo baluarteak diseinatzen hasi ziren.

Bastioi edo baluarteen teknika Italian garatu zen. Oro har, bastioiak pentagono itxura zuen eta goitik begiratuta gezi baten punta zirudien. Diamante punta ere esan ohi zaio. Hauek, garai bateko dorreak eta ondorengo kuboak bezala, harresian zehar, gune estrategikoetan kokatzen ziren. Bere forma dela eta, hainbat angelu babesteko aukera ematen zuen, baita etsaia harresira hurbiltzen saiatzen bazen ere, eta baluarteak ondo kokaturik egonez gero, elkarren alboak defendatzeko aukera ematen zuten.

Baluartedun gotorlekuak, kanpo babes egiturez hornituta zeuden; hala nola, lubanarroak, errebelinak eta beste hainbat elementu. Kanpoaldeko elementu hauen helburua, etsaia harresira iristea eragozteak zen edo gutxienez, iritsi baino lehen, haien gudarostea nekatzea.

Hondarribiaren garrantzi estrategikoak hitz egin dugu jada. Errege-erregina ezberdinek hirigunea sendoki eta behar bezala gotortuta egoteko aginduak eman

zituzten historian zehar. Errege-erregina katolikoek hobekuntza nabarmenak egin zituzten, Erdi Aroko babes zaharkituak atzean utzi eta Hondarribia gotorleku moderno bihurtzeko. Karlos V.ak ere izan zuen bere papera guzti honetan gotorlekua handitu eta berrituz. Gogoratu, egun Arma Plazako gazteluari ezagutzen diogun itxura hark eman ziola. Horrela sortu zen egun ezagutzen ditugun arrastoak utzi zizkigun gotorleku modernoa Hondarribian.

Gaur egun, zati asko falta zaizkigu, baina zorionez, bere historia kontatzen digun harresi zati nabarmena geratzen zaigu oraindik eta bere harriek, gure historiaren lekuko izan dira. Gure historiaren lekuko horiek beroriek dira, egun, gure bizitza eta joan etorrien lekuko. Gure harresiak hitz egingo baligu, garai batean pentagono itxurako oinplano irregular bat osatzen zuela kontatuko liguke; mendebaldean mendixkak zituela eta beste norabide guztietan itsasoak inguratzen zuela. Bere harriak Jaizkibetetik ekarriak izan zirela xuxurlatuko liguke eta bost bastioi izatera iritsi zela: **Erreginarena**, Leiba edo San Nikolas deritzona (San Nikolas ate ondoan), **Magdalenaren** kuboia (egungo San Kristobal biribilgune inguru horretan, baina ez dago aztarnarik ikusgai), **Santiago** bastioia (erdi eroria, egungo alde zaharreko igogailuaren zonaldean) eta **San Feliperena** (desitxuratu samarra, egun Kasino zaharra dago bertan). Harresiaren zatirik sendoena San Felipe bastiotik Magdalenaren kubora zihoan eta zenbait tunel eta kontramina tartekatzen ziren. Kontraminak, barne pasabideak ziren eta barnealdetik harresi oinera iristeko aukera ematen zuten, horrela arerioak harresipean minak jartzea eragotzi zezaketen. Harresi zati ahulena aldiz itsasora ematen zuena zen, urak berak babesa eskaintzen baitzuen.

Bestalde, bi ate nagusi zituela ere kontatuko liguke harresiak, **Santa Maria** eta **San Nikolas**, egun ere erabiltzen ditugunak, nahiz eta San Nikolas atea urteetan itxita egon zen.

Arma Plaza kultur eta turismo informazio gunera hurbiltzen bagara, hiri harresituaren bilakaera erakutsiko diguten laminak ikusiko ditugu bertan eta egun Ramery etxean dagoen maketa ikusgarria ikusteko eskaera ere egin diezaiokegu Arma Plaza Fundazioari. Haien gida batek atsegin handiz azalduko dizkigu hiri harresituaren nondik norakoak. Aldez aurretik hitzordua eskatu beharra dago horretarako.

Material osagarria:

Baluartedun gotorlekuaren planoak ikusteko:

<http://bertan.gipuzkoakultura.net/eu/18/eu/11.php>

<http://www.sofiaoriginals.com/libro-de-javier-sagarzazu-sobre-fuenterrabia-hondarribia/>

Hondarribiako antzinako kartografia kontsultatzeko zerrenda biziki interesgarria, hiri harresitua eta beste hainbat gauza:

<http://www.ingeba.org/simancas/hondarribia.html>

Erreginaren baluarteari buruz sakontzeko: <http://www.hondarribia.eus/documents/124308/449667/Erreginaren+gotorlekua/f31dd2f6-cd9e-487e-a389-3a-cea308a6a0>

5. Jarduera: gure harresiak gauza asko ikusi eta pairatu ditu historian zehar eta hemen kontatu ditugunak baino gauza gehiago ere kontatu ditzake. Baina gaur gu geu izango gara kontalari. Gure harresiak oraindik dituen harriek zer kontatuko lukete? Horretarako harresiak ikustera hurbiltzea izango litzateke onena. Zertaz mintzo dira haren zulo eta pasabideak? Bakoitzak ipuin bat asmatu dezake harresien inguruan. Ez du garrantzirik zer kontatzen duen gure ipuinak beti ere harresiei lotuta badago. Guk nahi dugun garaian kokatuko dezakegu gure istorioa, bai iraganean, egun edo etorkizunean. Noizbait harresietan gertatu zaigun pasadizo bat ere izan daiteke.

6. Jarduera: gure ipuina marrazki batekin ilustratuko dugu.

7. Jarduera: ikasgelan bakoitzak bere ipuina irakurriko du eta marrazkia erakutsi. Ea ze istorio asmatu dituen gure irudimenak!

8. Jarduera: liburuxka bat egin dezakegu ikaskideen istorio guziak ondo jasotzeko.

BA AL ZENEKIEN...?

Erreginaren baluarteak 2006 eta 2007 urteetan birgaitu zuten. Birgaitze lanetan baluartearen egituraren hainbat elementu azaldu ziren eta gaur egun, baluarteak bisitatzen dugunean, ikusi dezakegu gotorleku hau tunel baten bidez komunikaturik zeuden bi patioak osatzen zutela eta tunelaren gainean, bi patioen artean, artilleria plataforma bat zegoela kainoiak kokatzeko. Patioetan kasamatak eta tronperak zeuden, kainoiak jarri eta harresira hurbiltzen zen etsaiari tiro egin ahal izateko. Artilleriako plataformatik aldiz, egun parkea dugun tokitik, hainbat angelu kontrola zitzaketen. Hori nabarmena da bertaratu eta parke erdialdean kokatuz, kanporantz ikusten den eremu zabalari erreparatzen badiogu.

Erreginaren baluarteari garai batean Fuerte Canuto esan ohi zioten. Izen bitxia da eta hemen ikerketa lantxo bat proposatzen dugu: zergatik ematen ote zioten izen hori herrian? Ea nork ekartzen duen erantzunen bat ikasgelara! Beharbada liburutegira hurbildu gaitezke galdetzera. Han erantzuna ematen ez badigute ere, agian non bilatu dezakegun azalduko digute...

Material osagarria:

Erreginaren baluarteak antzinako postaletan, birgaitua izan baino lehen (bilaketa "Fuerte Canuto" bezala egin daiteke):

<http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

HARRESIA PILOTALEKU

Harresia, hiriaren garrantzi historikoaren lekuko dugu. Baina gure harresiak, izan du beste erabilpenik ere, pilotaleku adibidez. Santa Maria atetik Erreginaren baluartera doan harresi zatian, gaur egun Gernikako Arbola parkea deritzon horretan, hainbat aldiz jolastu izan dituzte pilota partiduak hondarribiarrek. Hala adierazten du adibidez, 1798an Udalak Gipuzkoako Kapitain Generalari igorritako eskutitzak, non frantziarrek 1794ko setioaren ondoren harresipean egindako zuloak konpontzeko baimena eskatzen den, bertakoak harresi zati horren azpian pilota jolasarekin jarraitu ahal izateko, ohikoa zuten bezala. Baiezko erantzuna berehala bidali zuen Kapitainak bueltan.

Beranduago, Gernikako Arbola parkean bertan, pilotaleku bat eraiki zuten, 1893-1894 urteetan. Udal pilotaleku hau, harresiarekiko paraleloan eraikia izan zen eta munduko luzeena zela diote bere 87,63 m-ko luzerarekin. Parean zituen harresien antzera, pilotalekua eraikitzeke harriak ere Jaizkibeleetik atera zituzten.

Eta gaur egun jolasten al da pilotan Hondarribian? Ba al dago pilotalekurik? Nola du izena eta non dago? Udalak Kapitain Generalari idatzitako eskutitzean, garai hartan herriak zeukan jolas publiko bakarra zela aipatzen da. Egun, ze beste jolas publiko ditugu hirian? Eta guk ze jolasetan hartzen dugu parte?

Material osagarria:

Pilota jokoa erakusten duen koadroa, 1864 urtean Gustave Colin-ek egina:
<https://www.hondarribia.com/pinturas/gustave-colin.htm>

XIX. mendean eraiki zuten pilotalekuaren irudiak:
<http://lurraldea.blogspot.com/2012/05/el-caso-de-los-espacios-del-juego-de-la.html>

Harresietako pilota jokoaren inguruan sakontzeko: <https://www.ingeba.org/liburua/pelotafortificaciones.pdf>

BESTE GOTORLEKUAK: PIRATEN GAZTELUA

Hondarribian badago piraten gaztelu bat. Higer lurmuturrean dagoen San Telmo gazteluaz ari gara, herrian Piraten Gaztelua bezala ezagutu izan dena. Higerko gaztelua ere esan izan zaio eta baita Talaia ere. Baina benetan piratak al zebiltzan gaztelu horretan?

San Telmo gaztelua 1598 urtean eraiki zuten Filipe II. erregearen aginduz. Hala dio bere atean jartzen duen latinezko inskripzioak: “PHILIPVS II HISP INDIAR Q REX / AD REPRIMENDA PIRRATARVM I LATROCINIA / HOC SANTERMI CASTELLUM EXTTUERE MANDANIT / ANO DOM -MDXCVIII / SIENDO DON JVAN VELAZQUEZ CAPN GN DE ESTA PROA”.

Inskripzio honetako esaldi batek argi adierazten du zein helbururekin eraikia izan zen, piratei aurre egiteko hain zuzen ere: *Ad reprimenda pirratarvm i latrocinia*. Zergatik ote zuten ordea piratengandik babesteko beharra?

Garai hartan, gure kostaldetik pasa ohi ziren merkatal itsasontzi askok gure uretan bilatzen zuten babesas itsasoa gaiztotzen bazen, eta kortsario eta piratak egoera honetaz baliatzen ziren itsasontzi horiek erasotzeko. Beraz, gure urak defendatzeko eta segurtasuna bermatzeko San Telmo gaztelua eraiki zuten Higer lurmuturretik hurbil.

Oinplano angeluzuzena zuen eta itsasora begira, bost kainoi izateko aukera ematen zuen.

1638ko setioaren hasieran, frantziar gudarostea agintzen zuen Conde printzeak 3.000 infanteria soldadu eta zalditeria bidali zituen San Telmo gaztelua hartzeko. Gaztelua ordea soldadu gutxi batzuk

zaintzen zuten eta halako gudarostea ikusterakoan, gaztelua utzi eta igerian egin zuten ihes, hiri harresitura, babes bila.

XVII eta XVIII. mendeetako dokumentu ezberdinek bere egoera txarra salatu eta berriztatzeko beharra azpimarratzen dute. 1755ean bolbora biltegia bihurtu zuten, horretarako beharrezko egokitzapen eta berriztapen lanak eginez.

Egun, garai bateko gotorlekuak ez du gure uren segurtasuna bermatzen; egun, egoitza pribatu bat da.

BA AL ZENEKIEN...?

Zurumurruek diotenez, San Telmo gazteluak itsasora irteteko pasadizo sekretu bat omen dauka. Kondaira bat da, baina bazeuden zenbait erreferentzia historiko. Azken hauen arabera, gazteluak lurpeko pasadizo bat zuen eta pasadizo honek, itsasora irteera duen kobazulo natural batekin konektatuko luke. Honi esker, bertan zeudenak ihes egiteko aukera izango lukete, erasorik izan ezker.

2013 urtean, Aranzadi Zientzia Elkarteko espeleologo talde batek, kondaira honi esker, ikuspuntu geologiko batetik interesgarria den kobazulo natural bat aurkitu zuen. Kobazuloa gazteluaren iparraldean kokatua omen dago, baina ez du gazteluarekin komunikatzen. Kobazuloa beraz, itsasoaren higaduraren emaitza da eta ez gizakiak eraikitako tunel misteriotsu bat.

Material osagarria:

Aranzadi Zientzia Elkartean txostena kobazuloa eta San Telmo gazteluari buruz: http://www.aranzadi.eus/wp-content/files_mf/1359017317TotalCuevaCSTelmo.pdf

Material osagarria:

San Telmo gazteluko planoak 1755. urtean: <http://www.ingeba.org/simancas/hondarribia/20036AGS106.pdf>

ELIZA GOTORTZE-SISTEMAREN BAITAN?

Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Maria parroki elizak badu zerikusirik Hondarribiaren gotorleku eta defentsa izaerarekin. 2. unitatean jada aipatu genuen Erdi Aroko jotzen den harresi zati bat ikus daitekeela elizaren iparraldeko fatxadak (gaztelua eta elizaren artean) eta absideak bat egiten duten tokian. Bretxatik elizako atzealdera gerturatuz gero, bertan dagoen zuhaitzaren ondoan jarri eta birrinduriko harresi zati bat dago agerian, elizatik bertatik aterako balitz bezala. Baina ez hori bakarrik, harresi aztarna horri arretaz begiratzuz gero, gainean pasadizo bat dagoela ikus daiteke, izan ere, elizaren absidea zeharkatzen duen erronda bidea da hori, Hendaiara begira. Zertarako ordea erronda bide bat elizan? Soldaduek Bidasoa ibaia eta Hendaia behar bezala zelatatzeke, bide honek oso ikuspegi ona eskaintzen baitu. Are gehiago, esan izan da, harresiak eliza gazteluarekin konektatzen zuela eta soldaduak erronda bidetik gaztelura pasa zitezkeela. Hala ere, ezin daiteke halakorik erabateko ziurtasunarekin baieztatu; hipotesi bat besterik ez da oraindik.

XV. mende bukaeran hasi ziren eraikitzen hiri harresituaren bihotzean, egun *Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Maria* deritzon parroki eliza. Datari dagokionez, zenbaitek 1471 aipatzen dute eta beste batzuk aldiz, 1474ko urtea da ontzat ematen dutena. XVI. mendean, Juan Martinez Zaldibia abokatu eta historiagileak Hondarribiari buruz luze idatzi zuen eta halaxe dio: *“el año mil y cuatrocientos y setenta y uno, a cinco días del mes de agosto, se puso la primera piedra de la iglesia de Fuenterrabía...”*.



Hiri harresitu baten bihotzean egoteak buruhauste bat edo beste ekarri zituen eliza eraikitzen hasi zirenean, izan ere, handik denbora gutxira, Gipuzkoako Kapitain Jeneralak lanak geldiarazi zituen. Hondarribiaren garai hartako gotorleku izaerak, guztia interes militarren baitan kokatzen zuen eta Kapitain Jeneralari, elizak hartuko zuen altuerak, gaztelutik Bidasoa ibaiaren ikuspegia oztopatuko zuela iruditu zitzaion. Aurrerago ordea, Juan Zarauz-Ganboak, Mugako Kapitain Jeneral izendatu zutenean, elizaren eraikuntzarekin jarraitzeko baimena eman zuen. Esker onez, hondarribiarrek Zarauz-Ganboa leinuaren armarría jarri zuten aldare nagusiaren gangan. Bertan jarraitzen dute egun ere eta errez ikus daitezke aldare nagusira gerturatu eta gora begiratzen badugu.

Juan Martinez Zaldibiak, beste hau ere aipatu zuen XVI. mendeko kronika horretan: “...*por haberse derribado la antigua, por ser pequeña y no estar en forma...*”. Elizaren inguruan dagoen beste hipotesi bat dugu hau; hots, gaur egun ezagutzen dugun eraikinaren aurretik, beste eliza bat egon zela leku berean. Horren adierazle izan daitekeen arrasto bat dugu: arkibolta bat. Arkibolta bat, arku baten zatia da eta XX. mendean, 1. unitatean ezagutu genuen Juan San Martinek, bat aurkitu zuen elizako horma batean, oso leku bitxian eta nahiko ezkutaturik. Kanpoan dago, kanpandorrearen atzealdean, zuhaitzaren aurrez-aurre dagoen horma zatian, behealdean, ia-ia lurrean. Berak erromanikotzat jotzen du (XII. mende aldera) eta aurretik bertan zegoen tenpluaren aztarna bat dela pentsatzen du.

Material osagarria:

Elizako arkibolta erromaniko zatia:
<http://meta.gipuzkoakultura.net/handle/10690/83308>

Ez dugu hemen gehiegi luzatu nahi elizaren inguruan, baina zenbait gauza aipatzeak merezi duela pentsatzen dugu.

Estiloari dagokionez, nagusitzen dena gotikoa da, errenazimendu garaiko gehigarriekin eta kanpandorre barrokoarekin. Azken hau Frantzisko Ibero arkitekto azpeitiarrak diseinatu zuen eta lanak 1762 urtean hasi ziren. Kanpandorrea eta haren oinarrian dagoen dorre karratua egitearekin batera, egundoko hiriko armarría jarri zuten Kale Nagusira begira dagoen horman.

Badirudi kanpandorrearen oinarrian dagoen dorrea, jatorrian, Erdi Aroko dorretxe bat izan zela, ziurrenik aurreko elizarengandik banandua zegoena. *Udaletxe* bezala ere erabilia izan zen dorrea, hiriko gobernua edo kontzejua han bildu ohi zen egungo udaletxea eraiki zen arte 1731-1740ean.

Kanpandorrea dela eta, marrazki berezi bat aipatu behar dugu. Hegoaldeko fatxadan dago (sakristia dagoen aldea) eta bertan dauden leiho handietako baten azpian ikus daiteke. Argi ibili beharra dago, ez baita berehalakoan ikusten, hareharrian eginiko markak baitira. Baina zein da marka hauen esanahia? Funtsean horman marrazturiko plano bat da eta kanpandorreko zenbait apaingarri erakusten ditu, tamaina errealean marrazturik. Arkitektoek zenbaitetan egiten zuten hau eta gure parrokan ere, kanpandorrea eraikitzeke momentuan marraztu zituztela pentsatzen da. Baionako katedralean ere aurkitu da horrelakorik.

Amaitzeko, hilerriak aipatu behar ditugu, gure herriko hilerria ez baita beti egun ezagutzen dugun lekuan. Garai batean, hilerriak elizaren ondoan edo barruan egon ohi ziren. Gurean, kokalekuz aldatzen joan ziren. Dokumentu zaharretan honela aipatzen dira: *ziminterio de arriba*

(iparraldeko fatxada, eliza eta gazteluaren artean), *ziminterio de abajo* (hegoaldeko fatxada, sakristia dagoen aldea) eta elizaren barruan. *Ziminterio de abajo* edo beheko hilerrian aztarna bat dago ikusgai, hilarri baten zati bat alegia. Hegoaldeko fatxadan bagaude, sakristiarantz joaterakoan murru bat dago. Murru horretan, arretaz bilatuz gero hilarri baten aztarna aurki daiteke, murrua eraikitzeko harrien artean.

Material osagarria:

Murruko hilarri zatia ikusteko:

<http://meta.gipuzkoakultura.net/handle/10690/82415?mode=full&volume=>

1638ko setioan zaurituak zaintzeko ospitale gisa ere erabili omen zen eliza.

BA AL ZENEKIEN...?

Florentino Portu hondarribiar ezagunaren arabera, elizako sakristiaren azpian babesleku bat egon daiteke, hiria setiopean zegoenean erabiltzeko modukoa. Hala ote da?

ELIZAREN ETA BALUARTEAREN SEKRETUAK

Aipatu ditugu elizak dituen zenbait bitxikeri eta sekretu. Gaur gure lana haien bila joatea izango da. Hona gure gaurko erronka beraz: erronda pasealekua, arkibolta, horman marrazturiko obra plana (kanpandorrearen apaingarriarena), hilarri zatia eta Erdi Aroko zigiluan oinarrituriko armarrak aurkitzea. Gai izango ote gara? Taldetan banatu gaitzke, talde bakoitzak elementu bat bilatu dezake eta ondoren beste guztiei aurkitutakoa erakutsi. Beharbada ez ditugu guztiak aurkituko, batzuk ez baitira errazak, baina bestela Arma Plaza

Fundazioko gidei galdegin diezaiekegu, turismo bulegora hurbiltzen bagara. Haiek ongi adieraziko digute non dauden marka edo elementu horiek.

Erronda pasealekua, arkibolta, hormako plano edo *grafitia* eta hilarriari buruzko informazioa eta irudiak, elizari buruzko aurreko atalean dauzkagu eta Erdi Aroko zigiluan oinarrituriko armarrak dagokionez, aurreko unitateko bisita pedagogikoan ezagutu genuen. Gogoratu iparraldeko fatxadan dagoela (gaztelua eta elizaren artekoa) burdin hesiz itxiriko sarreran. Bertan dagoen ate hormatuan dago eta Erdi Aroko zigiluan bezala, agertzen diren elementuak gaztelua eta bale ehizan dabilzan baleazaleak dira. Armarrak irudikapen hau 1567koa da, gure egungo armarraren aurrekoa da beraz.

Gure bilaketa eta ikerketa lan hau luzatu nahi badugu, erreginaren baluarteak aukera paregabea eskaintzan digu. Harresiei buruzko atalean izan dugu baluartearen berri eta ikusi dugu bi patio dituela, tunel baten bidez komunikatuak. Bere beheko patioan zenbait marka daude. Oraingoan harginek eginiko markei buruz ari gara. Ez da erraza marka hauen presentziaren zergatia zehaztea baina badakigu, garai batean, harginek, haien lanaren nondik norakoa markatzeko erabili ohi zituztela, horren arabera izango baitzen gero jasoko zuten lansaria. Baluartearen patioan “B”, “A”, “M” eta antzeko markak aurkituko ditugu. Gutxienez badaude lau.

Ea zenbat aurkitzen ditugun. Animo!

ERDI AROAN DORRETXEAK, ARO MODERNOAN JAUREGI

Aurreko unitatean, Erdi Aroko dorretxeei buruz hitz egin genuen eta gure ibilbide pedagogikoan Apezpiku plazan dagoen Azkue edo Etxebestenea dorretxearen berri bildu genuen.

Gipuzkoan dorretxe asko zeuden Erdi Aroan baina Enrike IV.a Gaztelako erregeak, haiek eraisteko agindua eman zuen 1456an, oinaztar eta ganboatar leinuen arteko borrokekin bukatzeko asmoz. Leinuen arteko gatazka haiek amaituta eta dorretxeek zeukaten defentsarako helburu hori galduta, garai berriek beste eraikuntza mota bat ekarri zuten. Honela, garai bateko dorretxeen hondakinetatik Aro Modernoko jauregiak sortu ziren. Honek ez du esan nahi, hala ere, gaur egun ezagutzen dugun jauregi oro hasiera batean dorretxea izan zenik.

Gipuzkoan XVI. mendetik aurrera, nortasun propioa zuen jauregi mota bat sortzen joan zen, bertako klima eta beharrei egokitua, leiho irekiera handiagoekin, baina gezi-leihoak eta arma patiorik gabe, teilatu-hegal handi eta ikusgarriekin eta atari apainekin.

Armarriak ere asko ugaritu ziren jauregietan. Erdi Aroaren bukaera aldera hasia zen jada armarriak etxeetan jartzeko ohitura; izan ere, suzko armak agertu ahala gerla egiteko modua aldatzen joan zen heinean, lehen zaldunek gezi eta ezpatengandik babesteko haien ezkutuetan eraman ohi zituzten ikurrak, denborarekin beraien etxe edo jauregietako atarietan jartzen hasi ziren. Baina Erdi Aroan oro har, dorretxe edo jauregietan jarritako armarriak nahiko xumeak ziren oraindik. Aro berri honetan, armarriak handiagoak eta ikusgarriagoak egiten hasi ziren eta zenbait jauregiren aurrealdeetan, bat baino gehiago jartzera ere iritsi zitezkeen.

Hondarribiak hainbat setio eta sute jasan bazituen ere, baditu ondo kontserbaturiko jauregi eta etxeak, bereziki XVI-XVIII mende tarte horietakoak ikus ditzakegu gaur egun, harro eta dotore, gure kaleen zaindari.

Zuloaga jauregia XVIII. mendekoa da, barroko estilokoa eta monumentu historiko gisa katalogatua dago. Badirudi 1507 urtean bazegoela jada Zuloaga familiaren jauregi bat leku berean, baina 1638ko setioan suntsitua eta ondoren berriro eraikia izan zen. 1753an berreraiki zuten, orain ezagutzen dugunaren itxura hartuz, nahiz eta 1794ko setioan, berriro ere kaltetu eta 1890ean berreraiki. Egun, **udal-liburutegia** dugu bertan.

Jauregi motari dagokionez, trinkoa da patiorik gabekoa, Euskal Herrian, Kantauri isurialdeko estilokoa. Aurrealdea ederra du eta bertan, armari ikusgarri eta dotorea. Barnealdean atari errektangular eta simetrikoa du, erabat harlanduan eraikia. Nabarmentzekoak dira, barruko eskailera eta putzua.

Zuloaga jauregiarekin kontraste handia egiten du ondoan dagoen **Iriarte etxeak**. XVI. mendekoa dugu hau. Erabat ezberdinak diren bi zatik osatzen dute etxea: alde batetik, beheko solairua, harlanduzkoa eta gainerako solairuak, zurezko bilbearekin eginak, garaiko herri arkitekturan sarritan bezala, ziurrenik adreiluz betea eta agerian dagoen luzitu zuriarekin estalia.

Kale Nagusian, zertxobait gorago, elizaren parean, **Gebara etxea** dugu, XVII. mendekoa, aurrealdean beiraturiko adreilu urdina duen bakarra inguruan. *Francisco de Guevara* izan zen famili honetan nabarmendu zen kideetako bat. Madrilen sortua 1626an, hiriko garnizoira bidali zuten kanpo-maisu eta ondoan dagoen Kaikuegi etxeko alaba *Graziarekin* ezkondu zen. Hauen seme *Pedro Ignacio*

1719ko setioan nabarmendu zen eta famili honetako beste *Francisco* bat hiriko alkatea izan zen 1758-1763 urteetan.

KONTU KONTARI...

Armarriak hala dio: *Oh que buen ladrón. De la casa de Guevara.* Arraroa gerta dakiguke hemen *lapur* hitzaren erabilera. Kasu honetan ordea, *lapur* hitza ez da gaur egun ezagutzen dugun adierarekin erabiltzen, baizik eta garai batekoarekin, hau da, *zerbitzari* zentzuarekin. Zer esan nahi ote du ordea armarriko esaldiak? Zergatik da Gebara zerbitzari ona?

XIX. mende bukaeran, *Xabier Cardaillac* arkeologo frantziarrak Erdi Aroko elezahar hau dakarkigu gogora. Hala jaso zuen Xabier Aranburu kazetari hondarribiarrak *Hirian barrena* liburuan: *“Nafarroako errege Iñigez Gartzea zuhertasunik gabe jokatu eta oinez abiatu zen pasieran ondoan bere emazte Urraka erregina baino ez zeramala. Haurdun zegoen erregina, oso aurreratua gainera. Mairu talde batek eraso zien eta beren zimitarrez zauritu. Bihozkada batek jo zuen orduan Fortunio Gebarakoa, erregearen kapitaina, eta errege-erreginaren bila abiatu zen soldadu batzuekin. Baina hilik aurkitu zituzten biak. Halaz ere, erreginaren sabel irekiaren barruan zerbait mugitzen zela sumatu zuen Gebarakoak. Mutiko hankagorri bat zen eta amaren barrutik atera zuen Fortuniok. Nafarroako errege izango zen ume hura, Santxo Abarka izenez. Urte batzuk geroago, eskua Gebararen sorbaldaren gainean amultsuki ezarririk, honela esango zuen erregeak: “Hau bai lapur ona, heriotzatik ebatsi ninduen”.*

Baina ez dira hemen amaitzen Gebara etxearekin loturiko bitxikeriak. Herri tradizioak, etxe hau begikoarekin lotzen du. Armariaren behealdean jada nahiko ezabaturik dagoen idazkun bat ikus daiteke oraindik: *“Sentencia del Espíritu Santo”*: *“LA MALDICION DE LA MADRE ARRASA Y DESTRUYE DE VERAS HIJOS Y CASA”*.

Material osagarria:

Gebara etxea eta armarría ikusteko: <https://www.euskadi.eus/app/ondarea/patrimonio-construido/casa-de-ladron-de-guevara/casa/hondarribia/-casco-historico/fichaconsulta/32483>

Mugarretenea etxea, San Nikolas kalean, ere ikusgarria da. XVI. mendekoa da egungo aurrealdea. Ate nagusia eta gainean duen armarría berantiaragoak izan daitezke eta baita teilatu hegala ere. Beharbada, 1638ko setioan jasandako kalteak zirela eta, harriz eraikitakoa mantendu zen baina zurezko elementuak berriro zituzten.

Ramery etxea, Panpinot kaleko 16. Zenbakian dago kokatua, XVII. mendekotzat jotzen da. Agirre etxea bezala ere ezagutu izan dugu. Beheko solairua harlanduz egina dago eta beste bi solairuak egurrezko bilbea dute, adreiluz beterik. Eguzki kalera begira dagoen aldean, kareharrizko harlangaitza eta hareharrizko harlandua erabili zituen XX. mendeko 70eko hamarkadan, Manuel Manzano Monis arkitektoak, eraikina guztiz eraberritu zuenean, hiriko museoa bihurtzeko asmoz. Denbora batez, Eusko Ikaskuntzaren egoitza izan zen eta egun Arma Plaza Fundazioaren eta beste kultur-erakunde batzuen egoitza da.

HIRI HARRESITUKO ETA PORTU AUZOKO ETXEAK

Eta nolako etxeetan bizi ziren herritar arruntak? Galdera honen erantzuna ez da berdina portuarrez edo kaletarrez ari garenean. Bi oinarrizko eraikin mota ditugu. Lehenengo azpimarratu beharreko ezberdintasuna teilatuetan dago. Bai hiri harresituan eta bai portuan, teilatuak bi hegaletara eraikiak daude, baina kalean, eraikinaren aurrealdera eta atzealdera eroriko dira eta portuan aldiz, bi alboetara. Hau horrela izanik, hiribilduko etxeen fatxadak teilatu-hegal horizontalarekin amaitu ohi dira eta portukoak aldiz, bi alboetara erortzen den teilatuak sortzen duen triangelu itxurarekin.

Nabarmendu beharreko beste ezberdintasun bat, etxeen arteko distantzia da. Hiri harresituan bata besteari atxikiak daude, zenbaitetan horma bera ere partekatzen dute eta Portu auzoan aldiz, oro har, distantzia bat gordetzen dute etxe bat eta bestearen artean, nahiz eta zenbait kasutan distantzia hori oso txikia izan.

9. Jarduera: ikus ditzagun Alde Zaharreko eta Portu auzoko etxeen ezberdintasunak gure kabuz. Joan gaitzen denak elkarrekin bi auzoetara. Alde Zaharrean Arma plaza izan daiteke deskribaturiko etxe mota aurkitzeko leku on bat eta Portu auzoan aldiz, San Pedro edo Santiago kaleak. Ondoren, auzo bakoitzean hautatu dezagun aipaturiko ezaugarriak betetzen dituen etxe bat eta marraztu dezagun. Orri berean egin ditzakegu bi etxeak, bata bestearekin alderatuz ezberdintasun horiek nabarmen gera daitezen.

10. Jarduera: gure marrazkiak prest ditugunean eta kalean gaudenez, ikerketa lan bat egin dezakegu. Herritarrak erreparatu ote diote noizbait bi auzoen arteko etxeen ezberdintasun honi? Taldeka herritarrei hurbildu gaitzke eta gure marrazkiak erakutsiz galdetu ea etxe bat eta bestea zein auzotan kokatuko lituzketen. Ea jendeak ze erantzuten digun... Asmatzen ez duenari kontu diezaiokegu guk ikasitakoa. Amaitzeko ikasgelan partekatu ditzakegu jasotako erantzunak eta marrazkiak zintzilikatu.

ESKLABU BAT SALDU ZENEKOA

Gaur egun, zaila gerta dakiguke historian zehar gizakiak beste gizaki batzuren jabe izan direla irudikatzea, pertsona bat beste pertsona baten jabego pribatua izatea alegia. Esklabuez ari gara, jakina, eta gure hiriak ere ezagutu du historian zehar horrelakorik.

Garai hartan, Gipuzkoa eta Bizkaiko legeek, esklabuak izatea debekatzen zuten arren, ez ziren gutxi esklabu bat edo beste zeuzkaten pertsona boteretsuak. Hondarribian esaterako, 1572 eta 1616 urte tartean, bertako alkate eta gobernadore guztiak izan ziren esklabuen jabe, baina baita armadore eta itsasontzi kapitainak ere.

Hondarribiako udal agiritegian, bada esklabutzarekin zerikusia duen gertaera bat jasotzen duen txosten bat eta bertan kontatzen da nola 1648an Hondarribiako Arma plazan, esklabu bat saldu zen enkantean: *Eiza Audala* izeneko berbere jatorriko gizasemea. Dirudienez, Eiza

Audala kortsario itsasontzi batean lanean zebilela eraso zuten eta Holandara eramane zuten preso. Bertan ingeles jatorriko itsasgizon batek erosi zuen esklabu gisa eta haren esanetara lan egin zuen, aske utzi zuen arte. Bere herrira itzultzeko asmoz, Frantziara joan nahi zuen eta Irungo Matxitxenborda izeneko baseritik pasatzerakoan, bertan zeuden gizon batzuk geldiarazi eta bere jatorriari buruz galdetuta, ihes egindako esklabu bat zela egotzi eta Hondarribiara eramane zuten, Pedro Zuloaga alkatearen esku utzi eta honek bertako kartzela publikoan sartu zuen, esklaboa zen ala ez argitu bitartean. Audalari hogeitalau orduko epea eman zioten esklabua ez zela egiaztatzen zuten dokumentuak aurkezteko eta halakorik ez zeukanez, esklaboa zela ebatzi zuten. Hala, 1648ko abuztuaren 9an salmenta bitxi bat antolatu zen Arma plaza eta kale Nagusia lotzen dituen kantoian; Eiza Audalarena hain zuzen. Bernardo Antona danbor publikoaren zaratak eta elizako kanpai hotsek zabaldu zuten enkanterako deialdia, baina alferrik izan zen; izan ere, jende asko bildu zen baina inork ez zuen Audala erosteko eskaintzarik egin. Hurrengo egunean ordea, enkantea errepikatu eta eskaintza txiki bat edo besteren ostean, Juanes Aguinaga Semerok erosi omen zuen berberiarra zilarrezko 200 errealekin truke.

Serapio Mugica historialari eta artxibozainak ere jaso zuen gertaera hau 1899an. Berak kontatzen digunaren arabera, Audala, Jacobe Laborda izeneko hondarribiar batek erosi ondoren, Hendaiara eramane eta bertan aske utzi omen zuen, jendeak inoiz ere esan ez zezan Hondarribian gizaki bat saldu zenik. Hortaz, pasadizo honen bertsio ezberdinak aurkitu daitezke, baina Hondarribiko agiritegiko B-1-I-5-3 txostenak argi eta garbi, xehetasun osoz kontatzen du Juanes Aguinagak erosi eta esklabu bezala erabili zuela.

11. Jarduera: ikasgelan pentsatu dezagun une batez eta eztabaida dezagun...zer iruditzen zaigu gizaki bat beste baten jabe izatea? Ados al gaude horrekin? Hondarribian ba al dago gaur egun esklaburik? Zer gertatuko litzateke egun, norbait esklabu salmenta bat antolatzen saiatuko balitz Arma plazan? Izango al genuke esklaburik etxean? Zergatik? Eta munduan zehar ba al dago esklaboak zilegi diren herrialderik?

SORGINAK HERRIAN?

Sorginkeria eta sorginen inguruko gaiak misterio eta jakin-mina eragiten digute. Berehala datozkigu Zugarramurdiko akelarreak burura eta antzerako istorio-mistorioak. Baina entzun al dugu noizbait Hondarribiko sorginen berri?

Ikasgelan, gaiarekin hasteko denon artean hausnarketa bat egin dezakegu: zer dira sorginak? Sinesten al dugu beraiengan? Ezagutzen al dugu Hondarribiko sorginen istorioa? Ze beste sorgin istorio ezagutzen ditugu? Gure artean partekatu dezakegu noizbait entzun dugun istorio hori...

Erdi Arotik hasi eta XVIII. Mendera arte, European zehar sorginen inguruko sinesmena oso zabaldurik zegoen eta ez ziren gutxi izan, han eta hemen, sorginkeria leporatuta, epaitu eta erre zituzten emakumeak. Jendeak era guztietako hondamendien erruduntzat jotzen zituen sorginak: pertsona eta animaliak gaixotzeaz, arrantza uxatzeaz, Ternuan zebiltzan marinelen berri izan eta haien itsasontziak hondoratuko zituen ekaitzak sortzeaz, hautsak barreiatuz sagar eta gari uztak hondatzeaz...

Gure herrian, 1611. urtean, zenbait emakume salatu, atxilotu eta epaitu zituzten sorginak izatea egotzita.



Baliteke azken urteotan istorio hau ezagunagoa gertatzea hondarribiarren artean, gaiaren inguruan egon baita argitalpen bat edo beste, baina oro har, badirudi ez dela sobera entzuna. Ikerketa bat egin dezakegu gure inguruan gertakari honen berri jende askok edo gutxik daukan ikusteko. Jendearen artean oso ezaguna ez dela iruditzen baitzaigu. Ezagutu dezagun lehenengo gertakari hura.

Gure udal agiritegiak dituen altxor ugarien artean, (bide batea agiritegien garrantzia, dokumentazioarena eta ikerketarena azaldu dezakegu, zurrumuruak uxatu eta datu errealekin aritzearen garrantzia azpimarratuaz) prozesu honen nondik norakoak jasotzen dituen dago. Dokumentu horretan adierazten da zehatz-mehatz, gertakari haren kronika. Aurretik Lapurdin sorginkeriaren aurkako prozesu gogorak egon ziren eta bertatik hainbat pertsonak ihes egin zuten muga zeharkatuz. Garaiko hondarribiarren artean, halako beldur bat sortzen hasi zen eta halako errezeloa zabaltzen mugaz bestaldetik etorritakoekin.

1611. urteko maiatzaren 6an, epaimahaia parroki elizako dorrearen kontzeju aretoan bildu zen, usuki udalaren bilkurak ospatzen ziren aretoan.

Garaian Hondarribiko alkate ziren Sancho Ubilla eta Gabriel Abadiak, Domingo Aranburu eskribauaren aurrean entzun zituzten Isabel Garcia izeneko hamahiru urteko neska baten adierazpenak. Salatzaileen artean neska-mutil multzo bat zegoen, zortzitik hamalau urte bitartekoak; salatuak aldiz, Hondarribian bizi ziren mugaz bestaldetik etorritako sei emakume izan ziren: Inesa Gaxen, Maria Ilarra, Maria Garro, Maria Etxegarai, Catalina Bereasarra eta Maria Oianguren.

Neska-mutilek oso antzeko istorioak kontatu zituzten. Hamahiru urteko Isabel Garciak esaterako, Maria Ilarra gau batez

bere bila etorri zela zioen. Bere gelan sartu eta besapean ukendu bat igurtzi ondoren, leiho ondoko zulo batetik atera eta bere sorbalda gainean harturik, hiribilduko teilatu eta harresien gainetik hegan eraman zuela Jaizkibelera, Santa Barbara baselizaraino. Bertan deabrua nagusi zen akelarre batean parte hartzera behartu zutela adierazi zuen. Deabrua, urrezko aulki batean omen zegoen eserita eta hiru adar eta isatsa omen zituen. Gaskoineraz hitz egin omen zien Donostia eta Pasaiatik etorritako sorginei eta euskaraz aldiz, Hondarribia eta Irundik zetozenei. Jainkoa eta ama birjinari uko egitera behartu zutela ere azaldu zuen eta sorginek danborren soinuarekin dantzatzen zutela. Salatzaile guztiek xehetasun oparoak eman zituzten ustezko akelarre horietan gertatzen zenaren inguruan eta bertan, salatutako emakumeak ikusi izana egiaztatzen zuten.

Hondarribiko agintariek, salaketa guzti hauen aurrean, emakume hauek atxilotzeko agindua eman zuten. Hasiera batean errugabetzat jo zuten haien burua baina kartzelaratu egin zituzten eta azkenean, ziurrenik pairatutako zigoren beldur, amore eman eta sorginak zirela aitortu zuten. Ez denek ordea. Haien artean bat, beti irmo eta tinko mantendu zen egozten zitzaion sorginkeri salaketa ukatuaz: Inesa Gaxen. Azkenik guztiak erruduntzat jo zituen epaimahaiak eta 1611ko ekainaren 13an, prozesua Logroñoeko Inkisizio auzitegiaren eskuetan utzi zuten.

Irailaren 7an iritsi ziren Logroñoeko berriak baina ez ziren inondik ere espero zituztenak. Inkisizioaren auzitegiak, Alonso Salazar Friasen gidaritzapean, emakume hauek askatu eta prozesuan zehar kendutako ondasunak itzultzeko agindua eman zuen. Zur eta lur geratu zen Hondarribiko epaimahaia eta emakume hauek Hondarribiarrentzako arriskutsuak zirela tematuta, haiek erbesteratzea

erabaki zuen eta gabarra batean sartuta, Hendaia era eman zituzten.

Ikus dezakegu, garaiko sorginen inguruko sineskeriak indar handia zuela. Beste adibide bat aipatzeko, Jaizkibelgo sorginak bereziki trebeak omen ziren ekaitzak eta itsasontzien hondoratzeak eragiten. Berrero ere haien errua izan omen zen Filipe III.a erregea bere alaba Ana, Luis XIII.ekin ezkontzera ekarri zuenean egon zen ekaitza, 1615eko azaroaren 7an.

1611ko prozesuan Inesa Gaxen ezagutu dugu. "Gaxen" izena aipatuta zerbait al datorkigu burura Hondarribian? Non entzun dugu lehenago izen hori? Ikasgelan aipatu dezakegu denon artean...Hondarribian Gaxen kafetegia dago Portu auzoan eta bere izena Inesagandik hartzen du hain zuzen. Bertako logotipoari erreparatuz gero ere, sorgin ile batzuk ikusi ahal izango ditugu.

12. Jarduera: gure artean pentsatu eta eztabaidatu dezagun pixka bat: zergatik ote zegoen halako beldurra garai haietan sorginen inguruan? Zergatik salatzen ote zituzten pertsona zehatz batzuk? Zenbaitetan gure arazoei azalpen bat emateko kanpoan bilatzen ditugu errudunak; horrela, arrantza edo uztak gaizki bazihoazen, izurriteak bazeuden... bazuten horrek eragindako frustrazio eta haserrea norengana zuzendu, nahiz eta egia ez izan. Bestetan, familien arteko gorroto edo inbidiak izan zitezkeen halako salaketak eragiten zituenak... Eta egun? Gure gizartean gauzak ondo ez doazenean norbaiti errua botatzen al zaio? Baietz uste badugu, nori?

13. Jarduera: hasieran aipatu bezala, ikus dezagun ea istorio hau ezaguna den gure inguruko artean. Gutako bakoitzak etxean galdetu dezake, lagunartean, gure auzoan... Nahi

dugun orori... Eta istorioa ezagutzen ez dutenekin gure kontalari dohainak landu ditzakegu istorio honen berri emanaz. Ziur bat baino gehiago harrিতa geratuko dela eta era honetan, gure iraganeko gertakari interesgarri bat zabaltzen ariko gara herrian ezagunagoa bihurtu dadin.

14. Jarduera: ikasgelan gidoi bat idatzi dezakegu istorio hau kontatzen duena eta bertako webgunean edo aldizkarian argitaratu.

HIRI ANTOLAMENDUA: UDALETXEA

Aipatu dugu hiriko gobernua edo kontzejua parroki elizako dorrean bildu ohi zela eta nolabait, horixe gogorazten digu, egun, dorrean dagoen hiriko armari izugarriak. Denborarekin, Euskal Herrian, udalen boterea handiagotzen joan zen eta eraikin propioak egiten hasi ziren, udaletxeak alegia. Hondarribian, 1731-1740 urteen artean eraiki zen egun ezagutzen dugun udaletxea eta harrezkeroztik, bertatik kudeatzen da hiria.

Eraikina barroko estilokoa da eta garaian eraiki ziren beste herrietako udaletxeen antzeko diseinua du. Harlandua erabiliz eraikia dago. Behealdean, hiru arkuz osaturiko arkupea du eta lehenengo solairuan, balkoi luzea, ongi landuriko burdinarekin. Goyaldean hiriko armariaren bi ale agertzen dira eta hauen erdian, inskripzio bat, bi lehoik babestua: *El Excmo. Sr. Dn. Gabriel Joseph de Zuloaga Thente Genel D Los Exertos D SM. Ayuntamiento Dia 1 De Henero De 1762. Jueves.* Izan ere, bi armari eder hauek, Gabriel Joseph Zuloagak oparitu zituzten udalari.

Barrualdeari dagokionez, XX. mende hasieran eraberritu zen eta nabarmendu beharra dago, 1902an jarri zuten beirate ederra. Beiratean hiriko armaria eta



bandera ageri dira, baina baita, historian zehar hiriaren alde hainbat gauza egin dituzten leinuen izenak ere. Hona hemen: Aguirre, Laborda, Ramery, Lesaca, Alquiza, Azcue, Venesa, Justiz, Matxin de Arzu, Careaga, Zuloaga, Alcega, Calatayud, Juan Ygnacio Sorondo, Domingo Sorondo, Cristobal Rojas y Sandoval, Diego de Butron, Domingo de Osoro, Ubilla, Urbina, Casadevante, Caicuegui, Ladron de Guevara, Saenz de Yzquierdo, Beaumont y Navarra.

15. Jarduera: ba al dago gaur egun zerrenda honetako abizenik Hondarribian? Ezagutzen al dugu abizen hori daraman norbait? Leinu hauen inguruan gehiago jakin nahi badugu taldeka antola gaitzke. Talde bakoitzak leinu baten abizena hauta dezake eta horren inguruko ikerketa egin. Adibidez, udalaren webgunean baten bat aurkitu dezakegu esteka honetara jotzen badugu:

<http://www.hondarribia.eus/eu/hondarribiko-leinuak-abizenak>

Edo liburutegian galdegin dezakegu izen hauei buruzko informazioa non topatu...Ea zer bururatzen zaigun...

Udaletxea Kale Nagusian dago eta kokapen hau, bitxia egiten zaie zenbait bisitariei. Inguruko herriei erreparatuz gero, udaletxea, herriko plaza nagusian aurkitzea izan ohi da ohikoena. Zergatik dago beraz gure udaletxea kale batean eta ez plaza batean?

Historian zehar, herriko plazaren funtzioa Arma Plazak bete duela esan daiteke. Bertan ospatu izan dira festak, zezenketak, merkatuak,... Baina Arma Plaza hiribildu baten punturik altuenenean sortu zen,

ondo gotorturiko gaztelu baten aurrean eta militarrek ere zeresan handia zuten plazaren inguruan. Hain zuzen ere, 1756an plazaren jabegoaren inguruko gatazka bat egon zen, plazako aginte militarra eta udalaren artean. Aginte militarrek, honen erabilera zibila mugatu nahi izan zuen eta udala kexu agertu zen. Hala dago jasota gure agiritegian, garaiko udala eta aginte militarren arteko eskutitzetan. Bertan, udalak hiriak plazarekiko dituen eskubideak aldarrikatzerakoan, aginte militarrek plaza horren jabetza frogatzen duen papera aurkezteko eskatzen dio. Alkateak orduan, plaza, hiribildua existitzen denetik hor egon izan dela eta hain zaharra izanik horrelako jabego dokumenturik ez dagoela erantzun zuen. Baina herriak beti ospatu dituela bertan zezenketak, alardea...eta ez dela inoiz arazorik egon haren erabilera publikorako.

Gatazka honek proiektu berri bat ekarri zuen: udalak herriarentzako plaza bat sortu nahi izan zuen Kale Nagusian, udaletxetik Zuloaga etxerako tarte horretan zeuden sei etxeak eraitsiz. Herritar bat baino gehiago plaza eraikitzeke dirua jartzeko prest agertu zen. Gaur egun badakigu proiektua ez zela burutu.

GURE UDALA

Erdi Aroan ikusi genuen orduko hiri gobernua nola zegoen antolatua eta orduko kontzejua, egungo udalaren lehen aztarna izan zela esan daiteke. Garai hartan kontzejua honela osatua zegoen: prebostea, bi foru alkate, epaimahaikideak, eskribaua, prokuradore sindikoa eta maiordomo diruzaina.

Egun alkateak eta zinegotziek osatzen dute udal gobernua. Gerturatu gaitzen eta ikus dezagun gure hiriaren inguruko erabakiak nork eta nola hartzen dituen gaur egun, hala azaldua dago udalaren webgunean:

Hondarribiko gobernua eta administrazioa udalak kudeatzen ditu. Udala Alkateak eta Zinegotziek osatzen dute. Zinegotziak bozka bidez hautatzen dira lau urtean behin eta alkatea, zinegotziek hautatzen dute. Alkatea da alkatetzako ordezkari gorena, udalaren legezko ordezkari administratiboa eta gobernuaren eta udal-administrazioaren titularra eta udal-gobernua eta administrazioa zuzentzeko funtzioak ditu. Horrez gain, bere esku daude Udal-gobernua osatzen duten arloen eta udal-administrazioa eratzen duten Sail, Zerbitzu eta bestelako erakundeen antolamendua.

Udal-gobernua hainbat arloek osatzen dute. Hauek dira egun aurkitzen ditugunak:

Hirigintza eta ondarea: ondarearen kudeaketa, hiriko garapen urbanistikoa eta mantentze-lanak egiteko arloa.

Ogasuna eta Zerbitzu teknikoak eta obrak: udalaren eta hiriko baliabide ekonomikoen kudeaketarako arloa.

Ekonomia, Merkataritza eta Turismoaren Sustapena: turismoaren eta merkataritzaren sustapenerako eta garapenerako arloa.

Higikortasuna, Ingurumena eta Nekazaritza: nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sustapenerako eta garapenerako, eta ingurumenaren babeserako arloa.

Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna eta Lankidetzak: herritarren gizarte babeserako arloa.

Gazteria eta Prebentzio Komunitarioa: gazteria arloak dituen helburu nagusien arteko bat neska-mutiko eta gazteentzako heziketa-jarduerak garatu eta sustatzea da.

Kultura: Hondarribiko ondare kulturalaren sustapenerako eta babeserako arloa.

Euskara: Hondarribian euskararen erabilera sustatu, babestu eta dinamizatzeko arloa.

Hezkuntza: irakaskuntzan eta herritarren prestakuntzan laguntzeko arloa.

Kirola: udalerrian kirola sustatzeko arloa.

Udaltzaingoa: herritarren segurtasunerako udal arloa.

BISITA PEDAGOGIKOA: UDALA ETA UDALETXEA EZAGUTZEN

Gure udala eta udaletxeari buruz zertxobait gehiago dakigu orain. Nahi izanez gero, Arma Plaza Fundaziora deitu eta bisita bat antolatu dezakegu gida batekin, eraikina barrutik ondo ezagutu eta hainbat bitxikeri gehiago jakiteko gure hiriaren kudeaketa egiten den tokiari buruz. Fundazioarekin harremanetan jartzeko +34 943 64 46 23 telefonora deitu daiteke edo armaplaza@armaplaza.eus helbidera idatzi.

BIDASOA IBAITIK OZEANO HANDIRA. GURE MARINELAK TERNUAN

Aro modernoan murgilduriko Hondarribian hiribilduak berebiziko protagonismoa izan zuen arren, itsasoak ere badu beti zeresanik gure herrian.

Aurreko unitatean jakin genuen gure marinela bale-ehizean gailendu zirela, baina Erdi Aro bukaeran bale kopurua nabarmen murrizten joan zen Kantauri itsasoan eta euskal marinela geroz eta urrutiago joan behar zuten balea atzemateko. 1610-1615 urte tarte horretan, 21 bale ehizatu omen ziren hemen eta 1631an soilik 5 ale. Honenbestez, XVI. mendean badakigu euskal marinela Ternuan barrena zebiltzala bale-ehizean



eta bakailao-arrantzan eta urtero joaten zirela, Atlantikoa zeharkatuz, gogorra bezain arriskutsua zen bidai horretan.

Gure herriko sarreran badago behe-erliebe bat gure marinelen Ternuako abenturez mintzo zaiguna. San Juan de Dios biribilgunean dago, Sabin Arana kalea Minasoroeta kalearekin elkartzen den horretan. Jose Diaz Bueno eskultorearen lana da, 1954koa. Albo bakoitzean aingura bat duten zementu zuriko plakak dira, non hiru ontzi ikusten ditugun, hiru edo launako eskifaiarekin, erdigunean dagoen balea ehizatzeke ahaleginean, goialdean Guadalupeko Ama Birjina dutelarik zaindari. Behe-erliebearen gainean zizelkaturiko inskripzioak hala dio: **BALLENEROS ONDARRIBITARRAS EN TERRANOVA SIGLO XV.**

Egun ez dakigu hondarribiarrak XV. mendean jada Ternuan ote zebiltzan bale-ehizan ala ez, baina bada XVI. mendean urrutiko ur haietan zebiltzalako frogarik. Halaxe ziurtatzen du, esaterako, 1563ko maiatzaren 15eko hondarribiar arrantzale baten testamentuak. Hondarribiarra, Domingo Luça da, eta Ternuako “Plazençia” portuan hil zen 1563an egindako bidaia batean. Marinela eta despentsaria zen *María del Juncal* izeneko nao-an, eta bertan maisu eta kapitain, Joan Xuarez izeneko beste hondarribiar bat zegoen. Testamentu hau benetako altxorra da, izan ere, Ipar Amerikan idatziriko dokumenturik zaharrena da. Dokumentua Michael Barkham Huxley historialari eta doktoreak aurkitu zuen 2013an eta haren ustez, Luça ontzian hil ondoren, kapitainak Hondarribiko alkatearen aurrean aurkeztu zuen testamentua, ontziko eskifaiako zazpi lekukoekin batera eta honek, haren alargun Maria Martin Aguinagak herentzia eskuratzeko balio izan zuen.

Badaude Ternuan eta oro har Kanadan, gure herriko beste zenbait arrasto ere. Oraingoan toponimiari buruz ari gara. Gaur egun, inguru haiek euskal toponimoez beteta daude: Barrachoa (Barrachoix, Ternua), Ophor portu (Port au Port, Ternua), Aingurachar (Ingornachoix) eta beste asko. Gure arbaso euskaldunek utziriko arrastoak dira; izan ere, euskaldunak Ternua inguruetara urtero joaten ziren baleak ehizatu eta bakailaoa arrantzatzerara. Batez beste sei hilabete inguru pasatzen zituzten bertan lanean. Bertakoekin harreman onak garatu omen zituzten eta denborarekin hizkuntza berezi bat garatu omen zuten elkar ulertzeko, bertako tribuen hizkuntza eta euskararen arteko nahasketa bat zena. Beraz, ez da harrizkeoa egun ere euskal jatorriko hainbat izen aurkitzea bertan. Hondarribiarrekin zerikusia dutenetatik bi toponimo aipatuko ditugu: *Amuiz eta Fontarabie*. Lehena Higer lurmuturrean, gure itsasargiaren aurrean kokatzen den Amuiz uhartea da eta hiru leku ezberdinetan azaltzen da urrutiko lur haietan. Fontarabie aldiz, bitan agertzen da: alde batetik, Québec-eko Dagenay konderrian dagoen aintzira bati ematen dio izena eta bestetik, Maskinongeko Santa Ursulako ibai bati.

BA AL ZENEKIEN...?

Ternuatik bizirik itzultzen ziren marinelek ezkerreko belarrian urrezko uztai bat jartzeko ohitura zuten. Marinelek ongi aski zekiten hartzen zuten arriskua, etxera bizirik itzultzearena ez baitzegoen inolaz ere bermatua. Ternuan aurkituriko arrasto ugarietako bat, euskaldunen gorpuak lurperatuta dauden hilerri bat izan zen. Lanak, etekin handia ematen zuen, baina biziki gogorra eta arriskutsua zen.

Bale-ehizaren arrasto gehiagoren bila jarraituz gero, herri literaturan dugu bestea. Hauek, Resurreccion Maria Azkuek 1850. urtean Hondarribian bilduriko bertsoak dira eta hiru arpoilarien trebetasunari buruz dihardute: bi hondarribiar eta ondarroar bat. Hondarribiarrak, Jose Caramelo eta Jose Manuel Sereno dira eta ondarroarra, Luis Gaiztoa:

*Luis gaiztoak eman lenengo arponada,
balea harrapatzeko txit gizon ona da;
bederatzi mila erreal zutela jorna,
estimatzekoa zen orduko arponada.*

*Joxe Karamelo zen bigarren golpean,
ederki portatu zen bere suertean,
baleari odola bizkarren betean
etzitzaion gelditu ito zen artean.*

*Joxe Manuel Serenok indarrak baditu,
haren zartadakoa Getarian aditu,
jendea egin zuen orduan harritu;
izugarritzko famak hark ekarri ditu.*

Baina itzul gaitezen gure uretara. XVI eta XVII. mendeetan, gure uretan bale-ehiza nabarmen jaitsi bazen ere, jarraitzen zuen. Kofradiak adibidez, lonja etxean labe berezi bat zuen hain preziatua zen balearen koipea urtu ahal izateko. Hondarribian balearen haragia kontsumitu ohi zen eta lumera edo urturiko bale koipea, gehienbat argiztapenerako erabiltzen zen.

Ez zen falta, garaian bale-ehiza ikuskizun bat bailitzan disfrutatu zuenik ere. 1539an adibidez, Karlos V.ak, Hondarribira etorri zenean, bertan balea nola harrapatzen zuten ikusteko aukera izan zuen eta marinelen trebetasuna miretsi omen zuen. Gauza bera gertatu zen, 1660an Pirinioetako Bakea berretsi zuen Austriako Maria Teresa eta Luis XIV.aren ezkontza zela eta bertaratu zirenekin.

XVIII. menderako, bale-ehiza erabat murriztua zen eta XIX. mende osoan zehar,

Kantauri itsasoan lau bale besterik ez ziren ehizatu; horietako bat Hondarribian.

Baina, XIX. mende horren bukaeran, hondarribiarrak bale bat ezagutzeko aukera izan zutela esan dezakegu, eta ez hondarribiarrak bakarrik, baita inguruko herrietako jendeak ere. 1881-1892 urte tarte horretan, bale bat agertu ohi zen urtero gure uretan. Handia zen, batzuen arabera 20 m eta besteen arabera 30 m neurtzen omen zituen. Amuitz irlaren ondoan lo egiten omen zuen, goizetan Higer lurmuturrean ikus zitekeen eta egunean zehar, Miarritzeraino inguratzen omen zuen. *Balaena Biscayensis* motakoa izanik, buruan kailu edo baba nabarmenak zituen eta bale bakoitzarenak ezberdinak eta bakarrak izanik, nortasun agiri baten gisa funtzionatzen dute. Horregatik zekiten, urtero itzultzen zen bale hura, ale berdina zela.

Gure arrantzaleek gauetan bere arnasa entzuten zutela zioten, bizkarreko zulotik botatzen zuen ur zorrotadaren bitartez. Behin baino gehiagotan saiatu ziren hura arpoiarekin harrapatzen, inolako arrakastarik gabe, nahiz eta pare bat alditan zauritzea lortu zuten.

Balearen urteroko etorrerak oihartzun handia izan zuen garaiko prentsan eta inguruko herrietatik jendea etorri ohi zen hura ikustera. Kronika haietan irakur daiteke:

“herriaren erdia baino gehiagok ikusteko aukera izan du itsasargira doan errepidetik”, “hondartzatik operazio guztiak ikus daitezke. Hainbat jende bertaratzen da, izugarria den bale honen arrantza ikusteko”.

Izan ere, jende andana hurbiltzen omen zen Irun, Hendaia, Donibane Lohizunetik... Garaiko prentsak Letizia izena eman zion, baina guk Martxela deitu eta dokumentazioan altxor hau aurkitu

genuenean, gure unitateen bidelagun bihurtu genuen. 1892. urtean ikusi zen Martxela azkenekoz. Ez dakigu modu naturalean hil zen edo beste hainbat bale bezala, gure kostaldean ehizatua izan zen. Nork daki aurreko unitatean aipatu genituen Zeria etxean aurkituriko bale hezurak bereak ote ziren?

16. Jarduera: atal honek hausnarketa berezia merezi du. Euskaldunak oso trebeak izan ginen bale-ehizean duela hainbat mende. Baleak aberastasuna eta onura zekartzan, zalantzarik gabe. Baina, dakigun bezala, neurri gabeko ehizak balea espezie modura arriskuan jarri du. Gaur egun, oro har ehiza debekaturik dago zenbait salbuespenekin; nahiz eta zenbait herrialdek ehizatzen jarraitzen duten.

Gure artean ekologiaz eta espezien iraupenaz hitz egiteko baliatu dezakegu aukera hau. Ikusi al dugu noizbait balerik zuzenean? Zer gertatuko litzateke egun gure uretan bale bat agertuko balitz? Norbait hura ehizatzen saiatuko balitz, guk zer egingo genuke horren aurrean? Ehiza ikuskizun bezala hartuko al genuke iraganeko errege eta nobleziaren antzera?

Zezenketak ere aipatu ditzakegu, zenbait festetan egiten den animalien erabilera basatia... Gaian nahi adina sakondu dezakegu.

GURE PERTSONAIA: ENRIKE LEKUONA MUÑOZ

“Euskaldunontzat itsasoa izan da leiho bat munduarekin konektatzeko”, halaxe esan zigun behin Enrikek. Enrike Lekuona Muñoz, 1945ean jaio zen Hondarribian eta 2017an hil zen.

Itsas ingeniaria ofizioz eta artista afizioz, Enrikek Hondarribia maite zuen eta herriaren alde lan egin zuen beti. Hainbat talde eta proiektuetan parte hartu zuen, bolondres, beti bere bihotza eta arima jarriaz egiten zuen horretan: Sustrai, Aranzadi, Albaola, Arkeolan, Olagarro abesbatza, Hondae...Azken honen sortzailea ere izan zen. Ondo ezagutzen zutenek, leiala, diziplinatua, burkide nekazina eta batez ere, taldekide aparta zela diote. Politikan ere engaiatua gaztetatik, herriaren alde lan egiteko beste arlotzat jotzen baitzuen, ezker abertzaleko kide eta zinegotzi ere izan zen herrian 1979tik 1984ra.

Itsasoa maite zuen. Hamar urte zituelarik, bere aita arrantzaleari, itsasontziak eraiki nahi zituela esan omen zion. Esan eta egin, 43 urte eman baitzituen itsasontziak diseinatzen.

Aranzadin arkeologia ikastaro bat egin eta ordutik, hainbat indusketa lanetan parte hartu zuen: “Hondarribia izan zen motibatu ninduen arkeologian sartzera... Jaizkibelek duen potentzial arkeologikoa izugarria da”, “Hondarribia da gure harri bitxia”. Beraren ustez, ondare asko dugu Hondarribian eta ezagutarazi beharra dugu, ezagutzen ez dena ezin baita maitatu. Ondarearen transmisioa oso garrantzitsutzat jotzen zuen: “Oso herri aberatsa gara, baina herri txiki bat garenez, gure historiak beti beharko du oinarri zientifiko serioa eta serio transmititu eta gure haurrak ilusionatu”.

Marrazkilaria ere bazen. Berarentzako plazerra zen marraztea eta artistaren begiradaz gainera, helburu hezitzailearekin marrazten zuela diote Hondae-kideek.

Sustrai taldearekin batera, Mariñel legazketaria Benta Zaharrera ekartzea lortu zuen eta buru-belarri ibili zen ontziaren zaharberitze eta prestaketa lanetan, hondarribiarrei eta bisitariei,

Hondarribiko ondarea ezagutzera emateko irrikatan.

Itsasoa, lurra, ondarea, euskalgintza... horiek ziren Enrikeren interes ardatzak eta horiek oinarri hartuta, Udalak gazteentzako ikerketa beka bat atera du Enrikeren omenez.

2017ko uztailean hil zen, eraberritze lanetan zebilela, Mariñel itsasontziko eskaileretatik erori eta egun batzuetara, kolpeak eragindako zaurien ondorioz.

KONTU KONTARI...

Enrikek ipuin bat ere utzi zigun, bere esanetan Hondarribiko kontakizun bat. Ipuin hau, Albaolakoek jaso zuten 2006an, Kanadan egin zuten Apaizac Obeto espedizioan. Espedizio honetan, Quebec hiritik atera eta San Lorenzo ibaian zehar, Red Bay-raino iritsi ziren, beraiek eraikitako XVI. mendeko baleatxalupa baten erreplikan. Garai hartako gure baleazaleen gisa nabigatu, jantzi, jan eta lo egin zuten, sentimenduen arkeologia eginez. Bidean hainbat jenderekin egon ziren eta beste gauza askoren artean, ipuin eta istorio anitz jaso zituzten bertako tribuengandik. Halaxe dio Enrikek Albaolakoengandik jasotako kontakizun honek: Euskaldunak urtero joan ohi ziren Ternuara, bale eta bakailao arrantzara eta harremanak zituzten bertako tribuekin. Bertako indiarrek arrantzan laguntzen zieten, sagardo eta bizkotxaren truke. Tribu haietako batean bizi zen gazte indigena batek esan omen zien behin, hona bidaiatu nahi zuela beraiekin, hemengo herrialdea eta bizimodua ezagutzeko. Hala egin omen zuen eta hemen zegoela, Pasai Donibaneko neska batekin maitemindu omen zen. Baina indiarrek ezin zuen hemen luzaroan

iraun, gogorra egiten omen zitzaion hemengo bizimodua eta bere lurraldera itzuli zen. Donibanetar neska berarekin joan omen zen eta mutilarekin batera tribuan bizi omen zen. Handik denbora batera, frantziarrak iritsi ziren lur haietara eta harrিতuta geratu omen ziren, tribu hartan neska zuri bat ikusirik. Tribukoei, neska zuria bahitu izana leporatu zieten, baina hauek ezetz, beraietako bat zela, asko maite zutela eta gainera asko laguntzen ziela, sendabelarrak oso ondo ezagutzen zituelako. Frantziarrek hori entzutean, neskari sorgina izatea leporatu zioten eta tribuaren aurrean erre omen zuten. Ipuin hau mendeetan zehar transmititu da tribu honetan eta orain gugana iritsi da Albaola eta Enrikeri esker. Baina zergatik zioen Enrikek hondarribiar istorio bat zela, Pasai Donibane baldin bada bertan agertzen den herria? Gogoan izan, dagoeneko ikasi dugun bezala, Pasai Donibane, garai haietan, XVIII. mendera arte, Hondarribiaren baitan zegoela. Enrikek beti azpimarratzen zuen, Hondarribian ontzi bikainak eraikitzen zirela eta horren adibide gisa jartzen zuen Albaolakoak eraikitzen ari diren San Juan baleontziaren erreplika, jatorrizko nao-a Pasai Donibanen eraiki baitzen 1560ko hamarkadan eta honenbestez, berak zioen bezala, Hondarribian: “San Juan Hondarribiko barku bat zen,... Hondarribiko ondare bat”.

KULTURAZ BLAI

Hondarribia oso aberatsa da kultur arloan ere. Azaletik bada ere, garrantzitsua iruditu zaigu, herrian ditugun hainbat kultur adierazpenen errepaso txiki bat egitea.

MUSIKA HAN ETA HEMEN

1819ko maiatzaren 26an, Hondarribiko gazte talde batek eskaera berezia egin zion Udalari. Haien hitzetan, musikarekiko maitasunak bultzaturik, akademia bat sortu nahi zuten, herrian musikari bultzada emateko eta horretarako, udal areto nagusia erabiltzeko baimena eskatzen zuten. Horrez gain, Donostia, Pasaia, Bergara eta beste herri batzuetan jada horrelakorik egin zutela aipatzen zuten. Hauek ziren gazte haien izenak: Jose Joaquin Casadevante, Jose Maria Iriarte, Jose Ramon Goenaga, Jose Arbelaitz eta Jose Nikolas Arburu. Askok, data hau hartzen dute Hondarribiko Bandaren sorreratzat.

Hiria zegoen egoeran, horretarako areto egokirik ez zegoela eta, udal areto nagusia bilerak egin, solfeo klaseak eman eta horrelakoetarako eskaera egin zuten. Kontutan eduki behar da, hiriko hainbat eraikin egoera txarrean egongo zirela berriki pairaturiko hainbat gatazken ondorioz: 1794ko setioa, independentzia gerra, Fernando VII. errege egin ondorengo altxamendu militarrek...Guzti honek eragina izan zuen Hondarribian.

Banda, jende aurrean noiz jotzen hasi ziren ez badakigu ere, 1854ko dokumentu batek adierazten du ordurako hasia zutela hauen bidea; izan ere, urte horretan udalari kexu bat helarazi zioten, hiriko jaietan Pasaiaiko musikariak ekarriko zituztela entzun zutela adieraziz eta hala izanez gero, haiek jotzeari uztearen mehatxua bota zuten. Udalak, hala ere, aurrera jarraitu zuen bere asmoarekin.

1901ean Olegario Laborda alkateak sinatutako dokumentuan, organista eta banda zuzendariaren lanpostuak betetzeko baldintzen artean, euskara ezinbestekotzat jotzen da, zuzendu beharko dituen gazteekin komunikatu ahal izateko; izan ere, azken hauek bertako

hizkuntza, euskara, espainola baino hobeto ulertzen baitzuten.

Nabarmentzeko ekitaldi polit bat gertatu zen 1934an. Orduan, kaletarren eta portuarren artean antolatu ziren estropadak alaitzeko lana egin zuten, San Pedro kalean barrena musika zabalduz. Ziur behin baino gehiagotan musikaren laguntza ezinbestekoa izan zela eta dela, aldarteak baretzeko!

Bere historian zehar, izen ugari izan ditu herriko bandak: *la Filarmónica*, *la Charanga*, *Banda Municipal Bidasoa*, *Olearso*, *Alaitso*,...1977ko maiatzaren 7an, Hondarribiko Musika Banda Kultur Elkarteak sortu zen arte.

Gure herriko bandak beraz, 200 urtetik gorako ibilbidea du eta ez da harritzekoa, Hondarribian izan den, musika banden zaletasuna handiaren ikusgarri.

Egun, Alazne Alberdi Susperregi da bandaren zuzendaria, baina oraindik ere ez da hain arrunta emakume bat aurkitzea zuzendaritza lanetan. Hala ere, badaude zenbait adibide: Ordizia, Elizondo, Galdakao, Barakaldo... gero gehiago dira.

2019an, bandak hiriko Urrezko Domina jaso zuen 200 urteko ibilbidea aitortu asmoz.

Txistulariak ere ez dira falta izan gure herrian. Udal agiritegian, herrian egon diren txistularien zerrenda dago eta bertan, lehen udal txistulariak 1737an agertzen dira: Juan Bautista Garain eta Juan Macuzo.

Garai batean, haien egitekoa, jaiegunetako kalejiretan zortzikoak jo edo Zumardian eta udaletxeko arkupean, dantzatzeko musika eskaintzea zen. Horrez gain, alkateak edo Udalak adierazitako ekitaldietan parte hartu behar zuten, adibidez. Zenbaitetan, herritarren urtebetetze data edo

santu egunean alborada jotzen zieten eskupeko baten truke.

Gaur egun, igande eta jaiegunetan alborada jotzen dute txistu eta danbolinaz. Alde Zaharrea hasi eta ibilbidea aldatzen joan ohi dira, egunaren arabera, Soroeta, Puntala, Mendelu, Amute-Kosta eta Portua alaituaz.

Urtero ospatzen da txistularien alardea. Alarde hauek gerra zibila baino lehen sortu ziren Euskal Herrian eta hirurogeiko hamarkadan abiarazi ziren berriro. Hondarribian, 1964 urtetik aurrera berrabiatu zen, Alberto Lasa Badiolaren zuzendaritzapean.

Material osagarria:

1914ko txistularien argazkia ikusteko esteka, bilaketan “txistulari” jartzearekin: <http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

Abesbatzei dagokienez, zerrenda luzea dago kontutan izaten badugu Hondarribia ez dela herri handi bat: Eskifaia, Xatz, Olagarroa, Zumardikoak, Surbesta, Klink, Kardiñeruak, Amuitz, Goxoki, Xarmanta, Kasino Zaharra, Herrikoak, Amute-Kosta, Elkar Amets... Hondarribian abesteko zaletasun handia egon izan da beti. Abesbatzen Herri Kanta jaialdia ere antolatzen da urtero eta bertan parte hartzeko baldintzetako bat, abesbatzaren partaideen %80a bertakoak izatea da.

Musika jaialdiei dagokienez, urtero hainbat antolatzen dira. Hor dugu Eliz Musika jaialdia, Blues jaialdia, Nazioarteko Gitarra jaialdia, Bidasoa Folk, Herri Kanta jaialdia, Fenomena, Hondarribia Reggae Town, Amuak...

Egun, musika ikasteko aukera Hondarribiko Musika eta Dantza eskola izan daiteke. Kontzertu aretoei dagokienez, aipatzekoa da Psilocybe proiektua, inguruko zein urrutiagoko musika taldeen erakusleio

izateko asmoz jaiotakoa eta musika mota ezberdinei zuzendurikoa.

Herriak ere eman ditu hainbat musikari eta musika talde. Ezin ditugu hemen denak aipatu, baina ezin aipatu gabe utzi, Txomin Artola, Javier Busto, Mikel Errazkin, Gorka Sarriegi, Urbil Artola, Sorotan Bele, Beti Mugan, Dut, Gorpuzkingz, Horzdun, Kabul, Kalite, Lif, Marmoka, Mutürbeltz, Orgasmic Toothpics, Velozet, Zura...

IDAZLE ETA OLERKARIEN PAPERETAN

Ziur hainbatetan pasa garela gure herriko txoko honetatik, baina baliteke, plaza txiki honetan gehiegi erreparatu ez izana. Olerkarien plaza, Alde Zaharrea dago, Javier Ugarte eta Juan Laborda kaleak gurutzatzen diren puntuan, San Gabriel adinekoen egoitzaren aurrez-aurre. Bertan, Hondarribiko olerkarien omenez eraikitako eskultura dago, 1967 urtean Jose Diaz Bueno eskultorea, Udalaren eskariz eginikoa. Eskulturaren, hegala zabaldurik dituen kaio bat ikusten dugu eta azpian ondorengo idatzia dauka: “a los poetas hondarribitarras”. Eskultura, jatorrian, iturri bat zen eta iturritik zerion ura, gaur egun desagertu den maskor batek jasotzen zuen. Zeintzuk dira ordea, Hondarribiko olerkari horiek?

Sagarzazutar Klaudio edo Kauldi, *Satarka*, Hondarribian jaio, bizi eta hil zen 1895-1971ko urte tartean, Alde Zaharreko Denda kaleko 13.ean (gaur egun 15. zenbakia) eta hantxe aurkituko dugu, bere omenez dagoen plaka. Garaiko idazle erromantiko eta olerkari sentibera izan zen. “Euskal Literaturan toki berezia merezi duen olerkari gozo biguna” dela dio Onaindiak. Lirikoa, aberkoia, goibel-itxurakoa, natura zalea, xamurra...zela zioten ezagutu zutenek. Bi poema liburu argitaratu zituen: *Txinpartak* (1922) eta *Intza-begietan* (1957). Hil ondoren plazaratu zen bere hirugarrena, *Ezti Tantik* (1996). 1966an euskaltzain urgazle izendatu zuten.



Hondarribiko Udalak literatur lehiaketa bat antolatzen du bere eta Bordariren omenez 1984tik gaurdaino: Bordari-Satarka literatur lehiaketa.

Fernando Artola, *Bordari*, dugu beste hondarribiar olerkari handia. Hondarribian jaio zen 1910. urtean eta 1983an hil zen bertan. Ezizena bere amak maiz errepikatu ohi zuen esaera zahar batetik hartu omen zuen: “Bordak adina bordari”. Euskal idazle eta olerkaria izateaz gain, bertsozalea ere ba zen. Euskaltzale sutsua eta gerra osteko garai ilunetan, euskal giroa bultzatu zutenetakoa. Bertso jaialdiak antolatu zituen eta literatur jaialdiak bultzatu. *Goraintzi* (1968) poema bilduma, *Bakoitzak berea I* eta *Bakoitzak berea II* (1982) eta *Aritz beraren adarrak* (1982) eleberria argitaratu zituen, azken hau bere anaia Rafael Artolarekin batera. Antzerkia ere jorratu zuen: *Tomasen buruaustek* antzezlanaren idatziz. Euskaltzain urgazle izendatu zuten. Bere seme Txomin Artola musikariak, oso ezaguna egin den *Olaxta* diska argitaratu zuen 1975ean, Bordari beraren itsasoa eta arrantza munduko olerkiekin.

Jarduera 1: zenbat aldiz agertzen dira Satarka eta Bordari izenak herrian zehar eta zenbat gauza ezberdin izendatzen dituzte?

Jarduera 2: ea Satarka ezizena nondik datorren asmatzen dugun...(erantzuna: *Sagarzazu tar Kauldi.*).

Juan Basurko Ansola ere aipatu beharra dugu hemen. Lagunak ziren Satarka, Bordari eta «**Baxurko**». Halaxe idatzi zuen behin Bordarik berari buruz: “erri-maitale gendun. Kutxa zaarrean gordetako oial, artille oial-on bat. Aritz-zura bezin gogorra, gaztanbera bezin guria.” Hondarribian jaio zen 1890ean eta Irunen hil 1957an. Zurgina zen ogibidez, baina batez ere, idazle, olerkari, bertsolari porrokatua... ez bapatekoa baina bai bertso paperetan. Argitaratutako lanen artean ditugu *Oroitza* (1941), *Jesusen Bizitza* (1954), *Iñazio Deuna* (1955), *Ibilkari bikain bat dan Sebe Peña Albisu* (1953). Horrez gain bere olerkiak garaiko hainbat aldizkaritan plazaratu zituen eta sari ugari irabazi zituen Baionan, Miarritzen, Saran eta Buenos Airesen. Jaizkibelgo baserri batean jaio zen eta hantxe, Guadalupe inguruan pasa zuen bere haurtzaro eta gaztaroa. Ez dira gutxi, bere inguruneari eskainitako olerkiak:

*Antxe goiko mendiyan
Baserri aldean
Jaizkibel maitearen
Egal-egalean
Itxas gañean dagon
Zelai zabalean
Antxe eukitze nindun
Amak magalean.*

Idazleen artean, aipatzekoak dira era berean, Rafael Artola, Javier Aranburu, Lurdes Zubeldia edota Juan Jose Irazusta.

Aipatutakoez gainera, badira bertan jaio ez arren, herrian bizi edo lotura handia izan duten idazleak: Klaudio Otaegi, Pierre Lhande, Xalbador Zapirain (*Ataño*), Juan Jose Etxaburu (*Kamiñazpi*), Martin Iturbe, Juan San Martin, Martin Ugalde, Arantxa Urretabizkaia, Jexux Mari Mendizabal (*Bizargorri*), Alfonso Sastre eta Eva Forest besteak beste.

BA AL ZENEKIEN...?

Satarkak *Aurtxo Seaskan* poema argitaratu zuen bere *Txinpartak* olerki bilduman, 1922an. Orduan ez zekien berak, olerki sorta hau, sehaska-kanta ezagunenetariko bat bihurtuko zela. Satarka, Denda kaleko 13. zenbakian bizi zen eta bere gurasoek Brunania izeneko ostatua zeukaten bertan. Ostatuaren aurrean Olazabal etxea zegoen eta etxe haren lorategian, gaur egun Olazabal parkea den horretan, zakur handi zaunkalari batek etxea zaintzen zuen. Brunania ostatuko gaueko tertuliak oso animatuak izaten omen ziren eta Satarkaren anai txikienak ez omen zuen oheratu nahi izaten. Amak orduan, ohera joaten ez bazen, Olazabal etxeko zakur izugarria bere bila etorriko zela esaten zion. Amaren mehatxua jasotzen du Satarkak olerki sortaren bukaeran: *"txakur aundia etorriko da, zuk ez badezu egiten lo"*. Baina nola bihurtu zen Satarkaren olerkia, zenbaiten ustetan "sehaska-kantarik ederrenean"? Horretarako abeslari eta koro zuzendaria izan zen Gabriel Olaizola hernaniarra aipatu behar dugu, bera izan baitzen, olerki sortaren lehenengo eta azken zatia hartu, doinu eder bat gehitu eta sehaska-kanta bihurtu zuena. Honela dio olerkiaren lehen eta azken zatiak:

*Aurtxo polita
Seaskan dago
Zapi zuritan
Txit bero...
Amonak dio:
iEne potxolo!
Arren egin ba,
Lo-lo, lo
Dlin-dlan, dlin-dlan...*

*Txakur handia
Etorriko da
Zuk ez ba'dezu
Eiten lo.
Orregatik ba
iEne potxolo!
Egin aguro
Lo-lo, lo
Dlin-dlan, dlin-dlan...*

Hona kantua entzuteko esteka:

<https://www.youtube.com/watch?v=GOBX-csOHul>

Hurrengoan kantua entzuten dugunean, beharbada Satarka, Sagarzazutarrak, Denda kaleko Brunania ostatua eta Olazabal etxeko zakur handia oroituko ditugu eta istorioa kontatu ahal izango diogu entzuteko prest dagoenari.

AHOZ-AHO, BERTSOLARIRIK PLAZAN?

"Bértako bertsolariak? Gutxi. Afíziyo aundíya dago, biñón sagardotégitik kánpora ibiltzeko mórukuak gutxi ziren. Labandibar anáyak agertzen dire Irun'go Euskal-Jáyetan, eta gero Bilintx'ek eméngo Joxépa'ri bótzen diyo enbídua. Oañ berandu xamar da Joxépa nor zen jakitteko. Claudio Otaegi ta áyek etzíoten kasu géyegerik eiñ, ta oañ fáz billátzera!" Hauek dira Bordarik hitzaldi batean esandakoak bertako bertsolaritzaren inguruan. Hitzaldia 1980an eman zuen Hondarribian eta bertako euskararen idatzia dago hasieratik bukaeraraino.

Material osagarria:

Bordariren hitzaldia Hondarribiari buruz, bertako euskararen emana:

<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51011.pdf>

Nor ote da aipatzen duen Joxepa? Bordari berak esaten duen bezala, ezer gutxi dakigu gaur egun Joxepari buruz. Bilintxen bertso batzuetan aipatzen da, Hondarribian

bazegoela Joxepa izeneko dama bertsolari bat, Euskal Herrian parekorik ez zuena. Hondarribiko Joxepa bezala zen ezaguna. Bestalde, garai haietan Anton Abbadiak antolatzen zituen Lore Jokoetan, 1853an “Hondarribiko neska” aipatzen da. Kontutan izanik garai beretsuetaz ari garela eta ez zela ohikoa, orduan, emakumeak plazan bertsotan ibiltzea, pertsona berdina zela pentsa dezakegu. 1869ko joko hauetan aipatzen denez, ordurarte hondarribiar neska bat zen ausartzen zen bakarra, baina azken hiru urteetan ez omen zen ageri plazetan kantari.

Gaur egun, ez zaigu arraroa egiten emakume bertsolariak plazarik plaza ikustea. Pentsa dezakegu, hau nahiko berria dela eta orain dela ez hainbeste arte, emakumeak ez duela presentzia handirik izan bertsolaritzan, baina hori ez da horrela, izan ere, emakumea eta bertsolaritza erabat loturik egon izan dira. J.M. Lekuonak dioenaren arabera, bertsolaritza emakumeei esker kontserbatu, gozatu eta transmititu da baserrietan, belaunaldietan zehar. Beraz, eremu pribatuan soilik aritzen zirela pentsa dezakegu, baina hori ere, ez da guztiz zuzena. Emakumeen bertsolaritza askoz ere ezezagunagoa da eta emakume gehienak egile anonimoak izan dira. Esan beharra dago, oso gutxi dokumentatua izan dela emakumeen bertsolaritza, ziurrenik ez baitzaio inoiz gizonezkoen bertsolaritzaren garrantzirik aitortu. Horregatik, zailagoa da honen inguruko ikerketa egitea eta halaxe gertatzen zaigu Hondarribiko Joxeparen kasuan ere. Baina historian zehar egon dira emakume bertsolariak eta batzuk apartak gainera. XIX. mendean esaterako, Hondarribiko Joxepaz gain, Maria Etchegaray, Hazparneko Anna Etchegoyen edota Kanboko Marie Argain ditugu, batzuk aipatzekotan, gainera azken honek 1895eko Ezpeletako lehiaketa irabazi zuen. Erretereri aldean ere badugu Antoni Aranberri Petriarenaren berri, Xenpelarren

iloba eta Zarautzen, Inazia Etxabe. Basarri berak ere adierazi zuen beti egon izan direla emakume bertsolariak.

Baina itzuli gaitezen gure Joxeparengana. Berari buruz, XIX. mendean bizi izan zela dakigu eta maila oneko bertsolaria zela, Bilintx berak berari desfioa botatzeko modukoa behintzat. Hauexek dira Bilintxek Joxepari jarri zizkion bertsoak, berarekin lehiatzeko gonbita luzatuz:

Hondarribiko Joxepari desfioa

-1-

*Aspaldian, Joxepa,
famatua zeunden,
gu berriz ikusteko
desiotan geunden;
Hondarrabi aldian
aditzen genduen
dama bertsolari bat
nola bazeguen,
zeiñak Euskalerrian
parerik etzuen.*

-2-

*Egiak ote ziran
famaren hots haiek,
bixitatu zindugun
zenbait jakinzalek,
hamar edo hamabi
donostiarrek;
haiekin batian zan
bizar haundi harrek,
izkribatzen dizkitzu
zuri bertso hauek.*

-3-

*Ni bertsolaria naiz
bainan det aditu
ez nitzaizula
zuri hala iruditu;
zuk horla pentsatzia
ez da zer harritu:
nere jakinduririk
ez nuen argitu,
zergatikan ez nitzan
premiari arkitu.*

-4-

*Balilteke irixtia
premia horretara,
agindu zenidala
goguan det bada,
prestaturikan nere
desiuetara,
baldin dibertsio bat
nahi banuen para,
etorriko ziñala
Errenteriara.*

-5-

*Egizu nahi zunian,
dama, etorrera;
zuregan utzitzen det
egunaen aukera;
ipintzen badidazu
horrelako era,
aprobetxatu gabe
ez niteke gera,
alkarrekin berriro
mintzatuko gera.*

-6-

*Arkitzen baldin banaiz
orduan umorez,
proga emango dizut
lehenagoko ordez,
beste iñori baiño
gustorago doblez,
gero juzga dezagun
ezaguera hobez,
ia bertsolaria
al naizen edo ez.*

Ez dakigu Joxepa Errenteriara joan ote zen, ezta inoiz elkarren artean lehiatu ote ziren ere. Noizbait Joxeparen erantzunik egon ote zen? Urte asko pasa ziren eta Maialen Lujanbio bertsolaria izan zen Bilintxen desafioa onartu eta Joxeparen ordez erantzun ziona. Hona Joxeparen erantzuna Maialen Lujanbioren bertsotan:

JOXEPAREN ERANTZUNA (Maialen Lujanbioren eskutik)

-1-

*Bere bizar haundia
eta antijua
Hondarribira egin du
bixita pijua
pena du Joxepari
ez adarrik jua
berriz izan ez dezan
keja ta ijua
Bilintxi bertso hauek
jartzera nijua.*

-2-

*Galdera egin dezu
kalian ta kaian
dalako Joxepa hori
harrapatu nahian
baino Joxeparikan
ez izaki zai han
bertsua izaten da
noiznahi gure mahaian
baina ez erronkosuek
nahi duten garaian.*

-3-

*Hondarribira etorri
zinana erromes
dama bertsolaririk
bazegon edo ez
lehen ez nizun nik ein da
orain lehengo ordez
proba hartuko dizut
gustoz ta onorez
baldin aurkitzen banaiz
ni ere umorez.*

-4-

*Mila zortzirehunetik
pasa gabiltzala
haundia da Bilintxen
bertsoen itzala
berak bihartu du nik
hauek jar nitzala
nahi dunak Joxepanak
ikasi ditzala
geroak jakin dezan
ni're banintzala.*



Material osagarria:

Eñaut Agirre eta Maialen Arzallus, Bilintx eta Joxeparen paperean:
<https://bertsoeskola.eus/baliabideak/153/>

Gure Joxepari buruz azken gauza bat aipatzea geratzen zaigu. Batzuek diotenez, Baxurko olerkariaren ama zen eta semea 50 urte inguru zituela izan omen zuen. Baina ez daukagu halakorik ziurtatzerik.

PROBA EZAZU BESTELA

Oraingoan ariketa proposamen batekin gatoz. Hurrengo urtean, herrian, “Gu ere bertotan” jaialdian parte hartzeko aukera egon daitekeela pentsatuz, zergatik ez trebatzen hasi dagoeneko?

Bordari, bertsolaria baino gehiago izan zen olerkaria, baina bertsoetan ere ondo moldatzen zen. 40 urterekin hasi zen idazten Bordari eta hasi zeneko garai hartakoa dugu errima ariketa jostalari hau. Guk ere errimak lantzeko baliatu dezakegu. Onartuko al dugu bere erronka eta *probatuko al dugu bestela?*

Esaterako, errima bereko hainbat hitz sartu ditzakegu poltsa batean. Ondoren ikasgela taldeetan antolatu dezakegu. Talde bakoitzak 3 hitz aterako ditu poltsatik eta bertsoa osatu beharko du Bordarik egiten duenaren antzera. Edo beste era batera ere antolatu dezakegu ariketa...Ea zer ateratzen zaigun! Ziur asko trebatuko garelako errimaren lanketan!

1/

Olerkirik onena: **okela**
 Hitz neurtu goxoena: **pastela**
 Bertsoak asmatzeko: **mistela**
 Ea, proba ezazu bestela.

2/

Burua estaltzeko: **txapela**
 Itsasoz joateko: **batela**
 Nahiago langosta, ez: **berdela**
 Ea, proba ezazu bestela.

3/

Hizlari moldakaitza: **totela**
 Legun ez dagoena: **zimela**
 Mizpirarik onena: **ustela**
 Ea, proba ezazu bestela.

4/

‘Alcoba’-ri euskeraz: **logela**
 Agiñari erderaz: **la muela**
 Ez otz eta ez bero: **epela**
 Ea, proba ezazu bestela.

5/

Zerbait baldin badago: **badela**
 Txekorra il da gero: **gibela**
 Huraxe janda bete: **sabela**
 Ea, proba ezazu bestela.

6/

Gizon eskaxa bada: **txepela**
 Begiondoko batek: **ubela**
 Otz-beroak neguan: **ozpela**
 Ea, proba ezazu bestela.

7/

Ur-antziretan kuaka: **igela**
 Senargaia lortzeko: **kandela**
 Hura ikusiz gorri: **matela**
 Ea, proba ezazu bestela.

8/

Arlote, alprojari: **pardela**
 Mikel, andre balitz: **Mikela**
 Ardoa urarekin: **motela**
 Ea, proba ezazu bestela.

9/

Ostoak erortzean: **orbela**
 Beti parrez dagona: **ergela**
 Triste, utsik badago: **sakela**
 Ea, proba ezazu bestela.

10/

Ni aspertzen asia: **naizela**
 Nahi dezanak jarraitu: **horrela**
 Hainbat gai arkituko: **duela**
 Ea, proba ezazu bestela.

HIRI BAT MARGOLARIEN BEGIETAN

Urtero, jaietan, Haur eta Gaztetxoan Margo Lehiaketa antolatzen du Klink Elkarteak Gipuzkoa Plazan. Jada urte mordoa daramatza lehiaketa honek abian eta herriko hainbat haurrek parte hartu dute honez gero. Horri buruz hizketan hasi gaitezke ikasgelan, ea margoketa gustuko dugun, ea klaseko norbaitek parte hartu duen noizbait lehiaketa honetan edo besteren batetan, ea margolaririk ezagutzen dugun herrian edo herritik kanpo...

Aukera ona litzateke denon artean hiriko toki jakin bat aukeratu eta bertaratzen bagara, gure margoekin leku horren marrazkia egiteko; hiriko txoko horren gure interpretazioa alegia.

Hodarrribian, hainbat arte eta erakusketa areto daude; baita margolarien estudio edo tailerrak ere. Margolarien begietan sarri egon ohi den hiria dugu gurea. Asko izan dira historian zehar hiritik pasa eta geratu diren artistak, hiria eta bere ingurunearen xarmapean harrapaturik, lami baten kantuak erakarritako marinelen antzera. Diotenez, Diego de Velazquez berak, Hondarribian margotu omen zuen Gaspar de Guzman edo Olibareseko konde dukearen koadroa, 1660an Felipe IV.aren gortearekin, Maria Teresa Infantaren ezkontzara Hondarribiara etorri zenean, Pirinioetako Bakearen testuinguru hartan.

Gure hirira etorri den margolariren bat edo beste ikusteko aukera egoten da noiz edo noiz, haien izenean egindako txoko batetan, asto eta pintzelak prest, Kale Nagusira begira. *Margolarien txokoaz* ari gara noski, 1968 urtetik, Alde Zaharreko Santa Maria atearen ondoan dagoen txoko erromantiko horretaz.

Margolarien txokotik Murrua kaleruntz biratuz gero, hiriko margolari entzutetsuenetariko baten eskultura topatuko dugu berehala; **Jose Ignacio Luis Echenagusia**rena hain zuzen. Jose Diaz Bueno eskultoreak egindako busto hau, apropos jarria dago bere kokalekuan, aurrez aurre daukan etxean jaio baitzen margolaria 1844 urtean. Etxearen beste aldean dagoen kaleak haren izena du, Etxenagusia Margolari kalea hain zuzen. Murrua kalearekiko paraleloa da eta Kale Nagusian jaio eta Leiba Jenerala kaleraino iristen da.

Etxena ezizenarekin sinatzen zituen bere koadroak. Marrazketa eta pintura ikasi zituen Bilbon eta Europan zehar ibili zen, pintura gune nagusietan murgildurik, Paris, Venezia, Florentzia, Bolonia edo Munichen eta Erroman finkatu zen azkenik. Garaikideak zituen margolari hoberenekin ere izan zuen harremana; Rosetti, Villegas, Fortuny edo Benlliurerekin esaterako.

Bere lanen artean nabarmentzekoak dira Begoñako Basilikakoa, Gipuzkoako Foru Aldundian dagoena edo gure parrokiako sakristian dagoen *El calvario* izenekoa.

Bere garaiko margolari arrakastatsua izan zen *Etxena*. Erroman hil zen 1912an.

BA AL ZENEKIEN...?

Hondarribiko Aste Santuko erromatarren eta apostoluen jantziak Etxenagusiak diseinatu zituen; izan ere, Erroman bizi izan zenean, erromatarren eta juduen janzkera historikoa ikertu zituen.

Hiriko beste margolari arrakastatsua dugu **Javier Sagarzazu Garaikoetxea**. Hondarribian jaio zen 1946ko azaroaren 9an. Margolaritza oso gaztetatik landu du, eta ez da harritzekoa; izan ere, bazuen nor jarraitu hemendik gertu: Montes Iturrioz, Gracenea, Menchu Gal...eta halako margolarien mihisetan ezagutu zituen lehenengo bidasoatar paisaiak. Bere lehenengo koadroa 15 urterekin saldu zuen, "Vista desde la muralla" izenburua duena.

Artista oparoa dugu Javier, eta bere lanetan akuarela eta oleoa landu ditu. Hondarribiarekiko maitasuna ere nabari zaio, askotan islatu baitu hiria bere lanetan.

Hainbat sari irabazi ditu bere ibilbidean zehar eta bakarkako 90 erakusketa baino gehiago antolatu ditu, bai Euskal Herrian, bai eta Londres, Munich, Burdeos, Paris, Viena eta Caracas bezalako hirietan ere.

Hiriko Haur eta Gaztetxoen Margo Lehiaketako Lehendakaria ere bada eta 2010 urtean, Udalak Hiriaren Urrezko Intsignia eman zion, izan duen ibilbide artistiko luze eta oparoarengatik.

Edozein egunetan, hirian goazela gurutzatu dezakegu, beharbada bere Alde Zaharreko estudioa lanera dihoan bitartean, egunero bezala, mihise xuriaren aurrean jarri eta lanean hasteko prest.

Hondarribiaren bere akuarela eta margoak ikusteko bi argitalpen nabarmenduko ditugu hemen, udal liburutegian errez aurkituko ditugunak: *Hirian barrena*, Javier Aranbururekin eta *Hondarribia, ñabarduren hiria* Ylenia Benitoren testuekin.

Amaitzeko, Hondarribiarekin nolabaiteko lotura izan duten margolarien artean batzuk aipatzekotan, **Enrike Albizu**, Jose Gracenea eta Daniel Vazquez Diaz ekarri nahi ditugu gogora. Enrike Albizu, Valentzian jaio zen arren 1926an, Hondarribian bizi izan zen denbora luzez,

bertan hil zen arte 2014an. Bere lanetan islatu zituen Hondarribiako paisaiak eta arrantzale, baserritar eta oro har bertako biztanleak. Udalak, Hiriko Urrezko Intsignia eman zion 2005ean.

Daniel Vazquez Diaz (1882-1969) andaluzaz zen eta Hondarribiko ohiko udatiarra. Behin, Pariserako bidean Hondarribia ezagutu eta bertan geratzea erabaki zuen. Hala dio Vazquezek berak: "Uda hartan hain sakon hondoratu zitzaizkidan Donostia, Pasaia eta batez ere Hondarribia non Paris alde batera utzi eta irailera arte ez bainuen jarraitu zilarrezko gris haien kolore eta poesiaren xarmak eten zuen bidaia." Hemen pasa zituen udaldietan hainbat aldiz margotu zuen gure hiria. Udaletxean bere koadro bat ikus daiteke, "Rey Alfonso XIII" izenburuarekin, 1926an margotua.

Material osagarria:

Margolarien txokoari buruz xehetasun gehiago: <http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E18rinconpintorese.pdf>

HARRIZKO ZAINDARI IXILAK

Harrizkoak, brontzezkoak, altzairuzkoak... dira gure herriaren zaindari isilak. Gure hirian eta inguruetan barreiatu daude, nahiz eta askotan ikusi ere ez ditugun egiten. Herriko monumentuak dira eta Hondarribiak 40tik gora ditu bere eremuan!

Ondorengo esteka honetan, Hondarribiko monumentuak aurkituko ditugu zerrendaturik eta mapa batean kokaturik:

<http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/arquiteturapublicaetce.htm>

Bisita birtuala egitera gonbidatzen gaitu estekak, baina herrian bertan egonik, zergatik ez eskultura bat edo beste aukeratu eta bertaratu?

Jarduera 1: bakoitzak eskultura bat aukeratu dezake eta argazki bat ekarri klasera. Ondoren, norberak, aukeraturiko eskulturaren fitxa labur bat prestatu dezake, oinarritzko informazioa bilduz: autorea, data, esanahia, beharbada bere kokalekuaren zergatia...Guk aukeratuko dugu gure fitxak ze informazio izatea nahi dugun eta denon artean hiriko monumentuen gure bilduma propioa osatu dezakegu eta ondoren ikastetxeko liburutegi edo mediatekara eraman, denontzako kontsulta gisa balio dezan.

Hondarribiko monumentu guztien artean, bereziki bi izen nabarmentzen dira eskultura gehien egile gisa: Remigio Mendiburu eta Jose Diaz Bueno. Atal honetan bi horiek aipatuko ditugu, baina baita hirugarren bat ere, hiriarekiko izan zuen loturagatik: Nestor Basterretxea.

Remigio Mendiburu Miranda Hondarribian jaio zen 1931an eta Bartzelonan hil 1990ean. Oteizaren hitzetan “zalantzarik gabe, gure artean, euskal sendotasun handieneko eskultorea” zen Mendiburu; are gehiago, “identifikatuena gure Euskal Herriarekin, eta modurik sinpleki naturalenean”. Hondarribiar honi buruz, beldurrik gabe esan daiteke euskal kultura berpizteko lanean aritu zen artistetako bat izan zela.

Euskal errepublikar familia batean jaioa, ihes egin behar izan zuen gerra zibilaren garaian. Oso gaztetatik gerraren ondorio latzak ezagutu zituen bere familiarekin batera Frantzia erbesteraturik, nola edo hala bizirauteko esfortzu handia eginez. Artistak berak aitortu zuen bere eskultura, gerran eta erbestean bizitutakoa kontatu eta adierazteko bide bat zela berarentzat.

Bere eskulturak soberakinak erabilia egiten zituela esan daiteke, izan ere, Mendibururi buruz esan izan da, material pobreen artista zela. Habe edo enbor zaharrak, zabortegi batean oraindik erre ez dituzten zuhaitzen sustraiak eta beste oparitutako edo aurkitutako materialak erabiltzen zituen. Zura erabili zuen gehienbat baina baita metalak eta harria ere.

Hirurogei hamarkadako euskal abangoardiaren *Gaur* taldeko partaidea izan zen, Oteiza, Chillida, Zumeta, Basterretxea, Ruiz Balerdi eta Sisitiagarekin batera. Bide batez aipatuko dugu, azken bi hauek beren tailerrak Hondarribian izan zituztela.

Sormen lan handia garatu zuen bere ibilbide artistikoak iraun zuen hiru hamarkadetan eta erakusketa asko egin zituen, bakarka zein taldeka: Madril, Bartzelona, Donostia, Paris, Tenerife, Venezia, Basilea, Mexiko...

Hondarribian bere bost eskultura aurkitu ditzakegu: *Txoria* (Puntalean), *Talua* (Karlos V.a gazteluaren atzean), *Izenik gabea 1* (Eguzki plazan), *Txalaparta* (Guadalupen, elizaren atzekaldeko zelaian) eta *Herrien batasuna* (Jaizkibelen, Pasaia eta Hondarribia arteko mugan).

Bere izena daraman kale bat ere badugu hirian, Alde Zaharrean, bere eskulturetako bat, *Izenik gabea 1* deritzona, dagoen tokitik oso gertu. Horrez gain, Udalak Hiriaren Urrezko Intsignia eman zion 2007an, “euskal kulturari orohar eta Hondarribikoari bereziki egindako ekarpen artistiko garrantzitsua...eskertuz.”

Egin zituen beste ekarpenen artean ditugu *Korrikaren lekukoa*, *Ez dok Amairuren ikurra* (Guadalupen kokaturik dagoen *Txalaparta* izeneko eskultura) eta *Eusko Ikaskuntzako* Manuel Lekuona sarian entregatzen den brontzezko eskultura.

Material osagarria:

R. Mendibururen Hondarribiko eskulturen inguruan sakondu nahi izanez gero:

Txoria:

<http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E06txoriae.pdf>

Talua:

<http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E07taluae.pdf>

Izenburu gabea 1:

<http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E13sintitulo1mendiburue.pdf>

Txalaparta:

<http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E05txalapartae.pdf>

Herrien batasuna:

<http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E14herriarenbatasunae.pdf>

BA AL ZENEKIEN...?

Mendibururen Herrien Batasuna monumentua Arrautza frijitua bezala da ezaguna herrian. 1963koa da eta bere kokalekua ondo aukeratuta dago Pasaia eta Hondarribiaren arteko mugan, bi herriek hainbat gatazka izan baitzituzten, bereziki, unitate honetan aipatu dugun bezala, Pasai Donibanek Hondarribiarekiko independentzia lortu zuen arte XVIII. mendean.

Monumentuaren alde batean Bordari olerkariaren poema bat irakurri daiteke: JAIZKIBEL'GO / AMA GUADALUPEKOAREN / BABESEAN / ANAITASUN EZAUGARRI / FEDE LORAK / BURNI T'ARRI.

Mendiburu bera, bertan dago lurperaturik.

Jarduera 1: Mendibururen izpiritua eta inspirazioa jarraituz, gure eskultura propioak sortu ditzakegu, guk geuk bildu edo lorturiko hondakinekin. Klasean lehenengo, bakoitzak bere eskultura pentsatu eta bozetoa marraztu dezake. Ondoren, ze material erabiliko dugun pentsatuko dugu eta kalean, mendian edo behar dugun tokian lortzen saiatu. Prest gaude gure eskultura landu eta forma emateko!

- Nestor Basterretxea kalea ere badaukagu Hondarribian, izen bereko artistaren omenez. **Nestor Basterretxea Arzadun** Bermeon jaio zen 1924ean eta Hondarribian hil 2014ean. Sortzez bermeotarra izanik ere, 30 urte baino gehiago bizi izan zen Hondarribian, herriarekiko lotura estua garatuz.

“Artista gai da errealitatearen gainean zerbait asmatzeko, errealitatean ez dagoen zerbait, zugan baizik. Zuretzat zeruek ezin dute beti urdinak edo grisak izan, edo zelaiek berdeak. Hor daude zeruak eta mendiak, baina nire zerua eta nire mendiak beste batzuk dira. Artea modu pertsonalean errealitatea diseinatzeko era da. Errealitateetik abiatuta, baina inoiz imitatu eta ilustratu gabe. Zure sentimenduetatik kontatuz”.

- Mendibururen antzera, erbestera jo behar izan zuen gerra zibila zela medio; Frantziara lehenengo eta Argentinara ondoren. Azken herrialde honetan hasi zen bere ibilbide artistikoa, 18 urte zituela publiziterako marrazkiak eginaz. 1952an Euskal Herrira itzuli eta Arantzazuko basilikako muralak margotzeko lehiaketa irabazi zuen.
- Bere ibilbide artistikoan zehar pintura, diseinua, sormen publizitarioa edo zinegintza landu bazituen ere, eskulturan nabarmendu zen, izan ere, Basterretxea

XX. mendeko bigarren erdialdeko euskal eskulturaren berritzaile nagusietako bat bezala hartzen da.

- *Gaur* edo *Equipo 57* bezalako talde artistikoen sorkuntzan parte hartu zuen; Oteiza, Chillida, Mendiburu eta beste zenbaitekin lehenean, eta Oteiza eta Ibarrolarekin bigarrean.

Beste lan askoren artean aipatzeko modukoak dira Euskal Artzainari eskainitako monumentua (Reno, AEB), Bakearen Usoa (Donostia) eta Eusko Legebiltzarreko hemizikloan dagoen zazpi adarreko zuhaitza. Horiez gain, bere eskulturak aurkitu ditzakegu Euskal Herriko hainbat txokotan edo Espainia, AEBak, Argentina edo Txileko hirietan.

- Jasotako sarien artean nabarmentzekoak dira Eusko Ikaskuntza saria (2005), Eusko Jaurlaritzaren Lan Onari medaila (2008), Gipuzkoako Urrezko Domina... Hondarribiko Udalak ere Hiriko Urrezko Intsignia eman zion (2009) “gure hiriarekin duen lotura kontuan izanik eta bere giza ibilbide eta artistiko ospetsua ikusirik alde batetik eta euskal kulturari egindako zalantzarik gabeko ekarpena eskertzeko bestetik.”
- Alde Zaharrean barrena baldin bagoaz, Arma Plazara iritsitakoan, altzairuzko forma berezi bat aurkituko dugu badiara begira. Basterretxearen Zinbaue deritzon eskultura da, 2001ekoa.

- **Material osagarria:**
Zinbaue eskulturari buruz xehetasun gehiago:
<http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E08zimbauee.pdf>

BA AL ZENEKIEN...?

Unitate honetan hiriko armarrarren berri izan dugu. Basterretxeak berak ere egin zuen armarraren bere interpretazio propioa. 1960ko jaietako egitaraua berak diseinatu zuen eta azken orrian aurkitu dezakegu hiriko armarraria. Jaietako programa (1960):
<http://www.hondarribia.eus/documents/124308/2930165/1960/09d01d30-1370-a75e-de53-0c8448874a75>

Amaitzeko, **Jose Diaz Bueno** eskultorea madrildarra den arren, atal honetan aipatuko dugu, hiriko eskultoretatik hamarrek baitaramate bere sinadura: S. Juan de Dios eskultura multzoa (1947), XV. mendeko euskal baleazaleei omenaldia (1954), Hartza eta gurbizta (1955), Javier Ugarte (1926), Cristobal de Rojas y Sandoval (1944), Etxenagusia margolaria (1946), Leda (1952), Berueteo muralak (1964), San Kristobal (1951) eta Olerkari hondarribiarrei monumentua (1967). Horrez gain, zerrenda honetako hiru lehenak hiriaren sarreran daude edozeini ongiatorria ematen egunero. Eskultura guzti hauek, hasieran aipaturiko zerrendan topatuko ditugu, haien inguruko informazioa sakondu nahi izanez gero.

Jarduera 1: azter dezagun ikasgelan zein den gure egoera kultur jardueretik: gutako zenbatek parte hartzen du kultur jardueraren batetan? Zeintzuk dira kultur jarduera horiek?

Jarduera 2: eta gure etxeakoak kultura talderen bateko partaide dira?

Jarduera 3: joan al gara inoiz ikuskizunen batera? Edo kultura emankizunen bat ikusi edo entzun al dugu?

Jarduera 4: zein kultura jardueratan nahi izango genuke parte hartu?

Jarduera 5: zein da gehienok egiten dugun jarduera?

Jarduera 6: zer da gutxienok egiten duguna?

Jarduera 7: lagunen batek egiten du jardueraren bat herritik kanpo? Zein eta non?

ZER IKASI DUGU?

Honekin batera, iritsi gara unitate honen amaierara eta ohi bezala, ikasitakoaz jabetzeko baliaitu dezakegu.

Jarduera 1: gutako bakoitzak azalpen bat prestatu dezake, unitatean ikasitakoaren inguruan. Horretarako, bakoitzak nahi duen moduan egin dezake: idatziz, marrazki baten bitartez, collage baten bitartez, eskultura bat sortuz, komiki bat, mural bat...

Jarduera 2: ikasgelan, bakoitzak prestaturiko azalpena aurkeztu dezake. Modu honetan, batek ikasitakoaz gogoratzen duena, besteenarekin osatu daiteke.

MATERIAL OSAGARRIA

Egiluz etxea postal zaharretan (Juana la Loca jarrita bilatzailean): <http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

Borgoñako arkulariak ikusteko: <https://artinwhitemetal.wordpress.com/tag/guardia-noble-de-los-archeros-de-borgona/>

Baluartedun gotorlekuaren planoak ikusteko: <http://bertan.gipuzkoakultura.net/eu/18/eu/11.php>

<http://www.sofiaoriginals.com/libro-de-javier-sagarzazu-sobre-fuenterrabia-hondarribia/>

Hondarribiako antzinako kartografiaren kontsultatzeko zerrenda biziki interesgarria, hiri harresitua eta beste hainbat gauza: <http://www.ingeba.org/simancas/hondarribia.html>

Erreginaren baluarteari buruz sakontzeko: <http://www.hondarribia.eus/documents/124308/449667/Erreginaren+gotorlekua/f31dd2f6-cd9e-487e-a389-3acea308a6a0>

Erreginaren baluarte antzinako postaletan, birgaitua izan baino lehen (bilaketa “Fuerte Canuto” bezala egin daiteke): <http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

Pilota jokoak erakusten duen koadroa, 1864 urtean Gustave Colin-ek egin: <https://www.hondarribia.com/pinturas/gustave-colin.htm>

XIX. mendean eraiki zuten pilotalekuaren irudiak: <http://lurraldea.blogspot.com/2012/05/el-caso-de-los-espacios-del-juego-de-la.html>

Harresietako pilota jokoaren inguruan sakontzeko: <https://www.ingeba.org/liburua/pelotafortificaciones.pdf>

Aranzadi Zientzia Elkartearen txostena kobazuloa eta San Telmo gazteluari buruz: http://www.aranzadi.eus/wp-content/files_mf/1359017317TotalCuevaCSTelmo.pdf

San Telmo gazteluko planoak 1755. urtean: <http://www.ingeba.org/simancas/hondarribia/20036AGS106.pdf>

Elizako arkibolta erromaniko zatia: <http://meta.gipuzkoakultura.net/handle/10690/83308>

Murruko hilarri zatia ikusteko:
<http://meta.gipuzkoakultura.net/handle/10690/82415?mode=full&volume=>

Casadevante etxea ikusteko: <http://www.hondarribia.eus/eu/etxeak-jauregiak>

Zuloaga jauregia ikusteko: <http://www.hondarribia.eus/eu/etxeak-jauregiak>

Iriarte etxea ikusteko: <http://www.hondarribia.eus/eu/etxeak-jauregiak>

Gebara etxea eta armarría ikusteko: <https://www.euskadi.eus/app/ondarea/patrimonio-construido/casa-de-ladron-de-guevara/casa/hondarribia/-casco-historico/fichaconsulta/32483>

<http://www.hondarribia.eus/eu/etxeak-jauregiak>

Mugarretenea etxea ikusteko: <http://www.hondarribia.eus/eu/etxeak-jauregiak>

Ramery etxea ikusteko: <http://www.hondarribia.eus/eu/etxeak-jauregiak>

1914ko txistularien argazkia ikusteko esteka, bilaketan “txistulari” jartzearekin: <http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

Bordariren hitzaldia Hondarribiari buruz, bertako euskararen emana: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51011.pdf>

Eñaut Agirre eta Maialen Arzallus, Bilintx eta Joxeparen paperean: <https://bertsoeskola.eus/baliabideak/153/>

Margolarien txokoari buruz xehetasun gehiago: <http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E18rinconpintorese.pdf>

Ondorengo esteka honetan, Hondarribiko monumentuak aurkituko ditugu zerrendaturik eta mapa batean kokaturik: <http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/arquitecturapublicaetce.htm>

R. Mendibururen Hondarribiko eskulturen inguruan sakondu nahi izanez gero:

Txoria: <http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E06txoriae.pdf>

Talua: <http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E07taluae.pdf>

Izenburu gabea 1: <http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E13sintitulo1mendiburue.pdf>

Txalaparta: <http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E05txalapartae.pdf>

Herrien batasuna: <http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E14herriarenbatasunae.pdf>

Zinbaue eskulturari buruz xehetasun gehiago: <http://hondarribiaondarea.eus/virtualmonumentos/E08zimbauee.pdf>

Jaietako programa (1960): <http://www.hondarribia.eus/documents/124308/2930165/1960/09d01d30-1370-a75e-de53-0c8448874a75>

BIBLIOGRAFIA

- Aragón, A. (2004). El patrimonio humano civil de Hondarribia en el antiguo régimen: una sociedad piadosamente violenta. En J. Altuna, M. M. Urteaga, J. L. Orella, L. Soria, M. Goyhenetxe, A. Prada, y otros, *Hondarribiko historia* (págs. 355-394). Hondarribia: Hondarribiko Udala.
- Aranburu, X., & Sagarzazu, X. (2006). *Hirian barrena*. Hondarribia: Hondarribiko Udala.
- Arrazola Echeverría, M. (1967). *El renacimiento en Guipúzcoa. Tomo I. Arquitectura*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Arrazola Echeverría, M. (1967). *El renacimiento en Guipúzcoa. Tomo II. Escultura*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Astiazarain Achabal, M. (2004). El patrimonio militar de Hondarribia. En J. Altuna, M. Urteaga, J. Orella, L.



- Soria, M. Goyhenetxe, A. Prada, y otros, *Hondarribiko Historia* (págs. 475-521). Hondarribia: Hondarribiko Udala.
- Calatayud Fernández, E., & González Blanco, A. (2004). Nuevos paralelos de las inscripciones de la fachada oriental de la iglesia de Santiago de Calahorra. *Kalakorikos*, 325-334.
 - Caro Baroja, J. (1961). *Las brujas y su mundo*. Madrid: Revista de Occidente.
 - Céspedes Arechaga, V. (2012). *El escudo de Hondarribia, Evolución de las armas de Fuenterrabía a través de los sellos*. Hondarribia-Madrid.
 - Chavarría Mújica, F. (2007-2013). Más allá de la provincia: la función defensiva de Fuenterrabía como fundamento de sus prerrogativas en el entramado Guipuzcoano y fronterizo (siglos XVI-XVIII). *7º Programa Marco de Investigación de la Comunidad Europea FP7*.
 - De Urantz, L. (2003). *Lo que el río vió. Biografía del río Bidasoa*. Irun: Boletín de estudios del Bidasoa.
 - Faktoria, A. I. (2017). *Euskal Herria Itsastarra*. Elkar; Alabaola Itsas Kultur Faktoria.
 - Furundarena Salsamendi, J. (2002). *Hondarribiko Toponimia*. Hondarribiako Udala; Euskaltzaindia.
 - Garmendia Estomba, R. (2018). La alcaldía de sacas de Gipuzkoa. *Ikerlanak/Estudios XVII - Luis de Urantz Kultur Taldea*.
 - Goiricelaya, E. (2012). La tenaz ballena de Fuenterrabía. *Cosas de Alde Zaharra*.
 - Goiricelaya, E. (2013). Canción de cuna de la calle Tiendas. *Cosas de Alde Zaharra*.
 - Hidalgo de Diego, I. (2004). Arquitectura civil en Hondarribia. En J. Altuna, M. M. Urteaga, J. L. Orella, L. Soria, M. Goyhenetxe, A. Prada, y otros, *Hondarribiko historia* (págs. 447-474). Hondarribia: Hondarribiko Udala.
 - Hidalgo de Diego, I. (2004). El patrimonio eclesiástico de Hondarribia. La iglesia de Santa María. En J. Altuna, M. M. Urteaga, J. L. Orella, L. Soria, M. Goyhenetxe, A. Prada, y otros, *Hondarribiko historia* (págs. 403-445). Hondarribia: Hondarribiko Udala.
 - Mújica, S. (1918). Geografía de Guipúzcoa. En F. Carreras i Candi, *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Alberto Martin.
 - Portu Iribarren, F. (1989). *Hondarribia, Notas históricas y curiosidades*. Hondarribia: Gipuzkoako Foru Aldundia; Hondarribiko Udala.
 - Rilova Jericó, C. (1998). Brujería en la comarca del Bidasoa. El problema de la incredulidad en el siglo XVIII. *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria*.
 - Saez García, J. (2002). *Gotorlekuak Gipuzkoan: XVI-XIX. mendeak*. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - San Martin, J. (1998). *Hondarribiko Andre Maria Jasokundekoa. Historia, arkitektura eta artea*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Santana, A. (s.f.). *Academia*. Recuperado el 01 de 04 de 2020, de https://www.academia.edu/6413620/Los_pueblos_amurallados_de_Euskal_Herria._Basque_walled_towns
 - Soria Sesé, L. (2004). Hondarribiko historia. En J. Altuna, M. M. Urteaga, J. L. Orella, L. Soria, M. Goyhenetxe, A. Prada, y otros, *Hondarribia Aro Modernoan* (págs. 185-218). Hondarribia: Hondarribiko Udala.
 - Truchuelo García, S. (2017). Irun y Hondarribia: una controvertida historia de discrepancias y consensos. *Boletín de estudios del Bidasoa*, 29. alea.
- ESTEKA INTERESGARRIAK**
- Errenazimenduaren inguruan: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/artearen-historia-errenazimendua/ar-125483/#hasiera>
- Aro modernoaren inguruan: <http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=AroModer>
- Hondarribiari buruz: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hondarribia/ar-53955/#77278>

Hondarribiari buruzko info orokorra:
<http://www.ingeba.org/simancas/hondarribia/hondarribiaintro.pdf>

Serapio Mugicaren Geografia de Guipúzcoa, Ingebaren eskutik: <http://www.ingeba.org/klasikoa/geografi/mug301/g741759.htm>

Hondarribiako setioari buruzko errelazioak (1638-1639): <http://www.euskonews.eus/0149zbnk/gaia14902eu.html>

Hondarribiako antzinako kartografia kontsultatzeko zerrenda biziki interesgarria, hiri harresitua eta beste hainbat gauza: <http://www.ingeba.org/simancas/hondarribia.html>

San Telmo gazteluko kobazuloari buruz: http://www.aranzadi.eus/wp-content/files_mf/1359017317TotalCuevaCSTelmo.pdf

Bastión y ciudad: Los proyectos para las fortificaciones de Fuenterrabía a finales del siglo XVI: <http://www.tiemposmodernos.org/tm3/index.php/tm/article/view/1282/640>

Gotorleku modernoak: <http://bertan.gipuzkoakultura.eus/es/18/eu/10.php>

Harresietako pilota jokoaren inguruan sakontzeko: <https://www.ingeba.org/liburua/pelotafortificaciones.pdf>

Artea, Euskomedia, Euskal Herria eraikitzen, Barrokoa, arkitektura zibila: <http://arte.euskomedia.org/index.php/4-0/4-2/4-2-1>

Satarkari buruz: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/sagarzazu-klaudio/ar-119808/>

Satarkari buruz: <https://zubitegia.armiarma.eus/?i=368>

Bordari eta Hondarribiko euskal ondarea (Hitzaldia): <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/75466.pdf>

Bordariri buruz: <https://zubitegia.armiarma.eus/?i=291>

Basurkori buruz: <https://andima.armiarma.eus/oler/oler13/oler1335.htm>

Hondarribiko Joxepari buruz: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1983/itzaleko-kulturgileen-historia>

<https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/1150-hondarribiko-joxepa>

<http://www.euskonews.eus/0056zbnk/gaia5603es.html>

“Anton Abbadiaren Koplarien guduak (1851-1897)”: <http://hedatuz.euskomedia.org/4007/1/03011059.pdf>

Emakume bertsolariak: https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2017-05-20-07-00/hemeroteca_articles/emakume-bertsolariak-historiatik-ezabatuak-inolako-azalpenik-gabe

Emakume bertsolariak historian: <https://bertsoikasgela.eus/albistek/emakume-bertsolariak-historian/>

Javier Sagarzazuri buruz: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/sagarzazu-garaicoechea-javier/ar-119805/>

Jose Echenagusia: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/echenagusia-errazquin-jose/ar-36611/>

Remigio Mendiburu: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mendiburu-miranda-remigio/ar-94378/>

Nestor Basterretxea: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/basterretxea-arzadun-nestor/ar-11973/>

http://www.euskonews.eus/0535zbnk/elkar_es.html

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2424/nestor-basterretxea>





Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua

